

zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

Ereintza elkarteak antolaturik

Errenteria euskal kultura bideetan

«Errenteriako bertsolari zaarrak» irakurtzen ari naizelarik bertso eder eta mardulik aurkitu dut bertako orrialdeetan. Fanderitarrak, Salaberria, Telleri-Txiki, Taberna, Urrutia... sortu du goi mailako amaika bertsolari Errenteriak. Eta bertan, hunkigarriak eta gaurkotasunez beteak Joxepa Antoni Aranberrik Europako gerrari eskainitako bertsoak:

Ager zaitez zeruko
uztargi ederra
pakia ematera,
akabatu gerra.

Europari begira bota bazituen bota, gaurko egoera dela eta honen antzekorik beharrezkoa izango zaigu egungo euskaldunoi. Eta burruka, eztabaida, ezin ikusia, bateratu ezina, luzatzen doakigu:

Gerr'au asi zanian
ez genduen uste
luzatuko zuela
gauzak onenbeste;
ez ogei ta bi egun,
juan dira iru urte;
Jesus eta Maria
urrikal zaitezte.

Bai, norbaiten errukia ezezik guztion lan eta gogo ona ezinbestekoa izango da. Lanak eta anai arteko batasunak salbatuko gaitu. Hauze duzue Ereintzak sortu, eragin eta lortu nahi duena.

ITO ZORIAN BAINA ITXAROPENEZ

Inoiz Errenteriako erdal giroaz mintzatu izan gera. Herri barruan, lehengo kale zaharretan, euskal kutsuzko giroa sumatzen bada ere, besterik gertatzen da inguruko hauzotan: Galtzaraborda, Markola, Beraun izenak ezagunak zaizkigu, eta lanak ematen ditu horrelako giroak; aurrerantzean lanean kementsu eta itxaropenez beterik jardutea ez da txantxetako gauza.

Halaz ere, bada alderdi on eta pozgarriak, euskal landareak indar har dezan berebiziko ongari izango denik. Hor dugu Ikastola, ugalduz, haundituz eta osatuz doakigun Ikastola, garai batean pentsa ezin zitezkean pausoak eman dituen Ikastola. Hor daduzkagu euskera ikasten ari diren gazte taldeak, lan ordutatik kanpo gauero bilduaz euskera ikasteari ekin dioten neska mutiak, elkarten etengabeko lana, haurren heziketaz kezkatutik diharduten taldeak, Kultura Elkarteak bere iragarkitan euskera aldetik hartu duen joera, Alabarga, Ibaika, Urdaburu, Laguntasuna... Bada elkarte aukerarik herri honetan.

Denetarik dago, bada, Errenterian. Argia eta iluna, poza eta negargurea, kezka eta itxaropena, erderaren nagusitasuna eta euskeraren bizi nahia. Eta giro honen barruan Ereintzak Euskal Astea antolatzeari buru belarri ekin dio.

EUSKAL KULTURA ASTEA

Euskal kultura aste baten gose egarri geunden. Antolatzeke asmotan ote zebiltzan ere entzuna genuen. Eta azkenik, lehengo amets hura egia bihurtu zaigu. Otsailaren 25ean emango zaio hasiera, eta egitarauan adierazten zaigunez, denetarik izango dugu: Euskal pintoreen lanen erakusketa, Diska eta liburu azoka, Larramendi, Intxausti eta Lertxundiren hitzal-diak, Xabier Lete eta Joxeanton Artzeren olerki saioa, Makazaga, Goiburua, Narbaiza, Ibarzabal, Zendoia, Zabala eta Kosme Lizasoren bertso jarduna. Euskalerriko goi mailako abeslariak: Xabier Lete, Lourdes Iriondo, Txomin Artola, Jose M.^a Zabala, Gorka Knorr, Manex Pagola, Pantxo eta Pello, Benito Lertxundik, Ereintzako txistulariekin batera eskainiko diguten jaialdia Errenterian aspaldian ezagutu ez dugun bezalakoa izango da. Herri-Meza ere ongi antolatua dute Martxoaren lehen iganderako.

ANTOLAKETA

Lan guzti hau Ereintzak bere bizkar hartu badu

ere, gainontzeko elkarteek ongi erantzun dute. Errenterian elkarten elkar-laguntza gero eta gehiago sumatzen eta nabaritzen ari da. Bestalde, Miran Eubio lehendakari dutelarik gogor ari zaizkigu Fermin Sarasola, Kepa Garmendia, Urruzolatarrak, Begoña Etxabe, Oliberi, Olegario Eizagirre, Akademian lanean dihardutenak, Kortajarena, Izagirre, Domingo Josu, eta abar. Ez dugu guztien izenik aipatzeko asmorik, ez bait dira aipamenean gose, egiazko hazia ereitea nahi dute baizik.

Lana taldeka antolatu dute, eta orain artean erakutsi duten egokitasunez antolatuko dutelakoan gaudete. Errenteriak merezi duena eskura nahi du Ereintzak eta Euskal Aste honen urratsak bide berriak irekiko ditu.

Bestalde, honelako aste antolatzeak gastuak berekin ditu, eta ez nolana hikoak gainera. Gipuzkoako Aurrezki Kutxak eskainitako laguntzari esker, beste zenbaitena gutxietsi gabe, diru arazo larriena konponduko dute, noski.

Artistek, abeslariak erantzun ezin hobea eman dute. Hauze da antolatzaileen ahoz jakin duguna. Eskerrik asko.

GEROXEAGOKO ASMOAK

Lanak, ordea, ez dira Euskal Aste honen antolaketan bakarrik mugatzen. Izan ere honek ez du ondoren onik sortuko lan eginaz, lanbide batetik abiatuz ez bada. Hori ondo dakite Ereintzakoek. Eguneroko lanaz gain, kirolak eta deporte gaiak ere euskeraz erabiltzen saiatuak ditugu oraindik orain. Jendeak ez du espero zen neurrian erantzun, baina beharrek berak erakutsiko du aurrerantzean nondik noruntz jo.

Irakurleak dakienez, ANARBE zanaren lanen berri eman bait genuen egunkari honetan bertan, euskal antzerki talde bikain bat utzi zigun Andoni Kortak. Andonik ere hazia erein zuen, luzaroan eta etsi gabe erein ere. Orain, berriaz, jakin dugunez, Andoni zanaren omenez Dollorra antzez lana prestatzen ari zaizkigu. Inoiz, maisuaren erakutsiei jarraituz, lan txalogarriak eskaini zuten. Orain, umezurtz, baina ikasitakoaren neurria erakutsiaz, euskaldun asko bilduko ditu antzerki saio honek. Ea bada, errenteriarrek euskal antzerkiaren giroaren epela berotzen dituten.

Eguneroko lanarekin batera, zenbait jaialdi ere prestatu behar da. Azken urte hauetan bai Sanjoan jaietan berdin Madalenetan, euskal giroari entsi dio Errenteriak. Baina, aurren, lehengoko markak hausteko, lanak aurrez programatzea eta antolatzea eskatuko du.

NON ZER

- DEI ARRASATERA!
Ansola 3 garrenean
- AMILCAR CABRAL HIL DUTE
Larresoro 3 garrenean
- FRANTZIAN, KATOLIKOAK ETA POLITIKA
Elustondo 5 garrenean
- SOBIETAR BATASUNAREN 50 URTE (eta II)
Azurmendi 6 garrenean
- NEKAZARITZA AN ETA EMEN
Alkiza 10 garrenean
- GOGOETA BATZUEK
Arregi-Mujika 11 garrenean



Ayaldek egiñiko Xenpelar bertsolariaren irudia.

BALDINTZA BATZUK

Guztiok batera gatoz gurea jasotzeko, indartzeko, lanari lotu behar gatzazkiola aitortzen dugunean. Baina danek ez dute bide berdina aukeratu.

Euskal Asteak, jaialdiak, bertso saioak, euskera ikastea, gure herriaren historiaren, egungo egoeraren berri jakitea eta abar, nahikoa ez dela argi eta garbi dago. Ez dira nahikoa, baina bai beharrezko pausoak. Eguneroko zapalkuntza arindu eta desegiteko, lan ordutatik kanpo denbora libre eskainiaz bakarrik ez dugu ezer lortuko. Azterketa sakonak, ausart jokatzeko eskatuko du. Euskal kulturagintzak ez luke ezerean indarrak izango beste zenbait arlo larritan zuzenki jokatzeko erabaki trinkorik ez balitz.

Zerbait gehixeago ere eskatuko nieke errenteriar elkarteek. Hots, Euskal sailean eta euskaltasunez jokatu nahi duten elkarteak batutzea, lanak elkarturik antolatu eta zuzentzea, sakabana erazi nahirik dabilzanezi batasun indarra erakustea. Hau kome-nigarria ezezik luzatu gabe konpondu beharrezko arazoa da. Horretan dabilzkitu errenteriarrek.

Sarritan, Euskalerrian etorkizunaz hitzegiten de-nean, industria giroan hazitako herriek kezka eta zalantza sortarazten digute. Halako bildurra ere ematen digute. Herri hauk, Irun, Eibar, Pasaia eta bere ingurua, Bilbao eta abar, noruntz abiatuko ote dira? Hona hemen galdera, galdera sola, zure erantzunaren baitan uzten dudana galdera. Binbitartean Joxepa Antoni Aranberrik Madalen ermitari eskaintzen dion azken bertso hura dut gogoan.

Noblia ta leiala
da Errenteriya
ezer egin nai badu
badauka premiya

Premiyak eraginda, noski, ekin dio euskaldungoari.

MIKEL UGALDE

bazkari onaren zanpagarria
eta txarraren estalgarria

**LA CASA
DEL CAFE**

Juan Irujo

San Marzal, 19 - Urrut. 413801
Donostia

TRANSPORTES azkar

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOTU AUNDIAK
Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.
Donosti'tik egunero:
Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Al-
cante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander,
Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.
Astean iru aldiz:
Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.
Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA
Telefonoak: 450313 eta 459723
Aptdo. 1381
Aptdo. 1381

BLAS DE LEZO
ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK
ETA EDARI GUZTIAK
Blas de Lezo Kalea, 6
Urrutizkiña: 41 20 65
DONOSTIA

JOSTUNDEGIA MODISTEGIA
UGARTE
Urbleta, 65
DONOSTIA

Nere Bordatxotik

Aurretik datozen oitura ta usarioak betetzen alegindu bear degu: bete-arazten, obeto esateko.

Katurik eztegu artu bear erbitzat. Zearo tonto ta iñozoak gera bestela.

Gure enskal jokoak lokatze-tara eroriko dira dana libre uzten badegu.

Arauk eta loturak bear dira derrigor: gizaldiz-gizaldi ezagutu diran aran ta moldeak.

Aiek artu bear ditugu ispillutzat.

—oOo—

Gure plazetan ebaki bear diran egurrak borobillak izan dituzela, basoan tente dauden arte borobillak oi diran bezela.

Ezer gutxi balio du guk esan dezakegunak. Au ba-dakigu ziur asi aurretik.

Gure iritzi, Gipuzkoa'ko Federazioak berealaxe zuzendu ditzaie oker guztiak. Gogoz artea naikoa: artaraxe jartzea.

—oOo—

Eztitugu egurrak bakarrik aitakoko.

Baita arriak ere. Lotsagarri samarra da, gure ustez, arrietan gertatzen dana.

Batipat, zilindro inenekoetan. Gaurko arri berriak, izena bakarrik dute zilindroarena.

Andik kendu ta emendik kendu, itxura lotsagarri batean geratu dira.

Lengo arri zarrak, beetik asi ta goraino ziran zilindroak.

Atzaparrak sartzeko eskuleku txiki bi barrenean, eta... kito! Ez al zaizute parregarria iruditzen ikusten eta entzuten ari gerana?

—oOo—

“Onenbeste kiloko arri zilindroarekin markarik aundiena onelakok zeukak, oraingo xixtima berriko arriekin”.

“Lengo xixtima zarrekoekin, alakok”.

Arri klase bat besterik ez litzake bear, eta ura izan dedilla gizaldiak zear guregana iritxi dan moldekoa, ta ez atzo goizean sortutakoa.

Sagarra sagar beti, ta udarea udare.

Zilindroa zilindro, ta molde berdiñekoa.

—oOo—

Arin-arin modu ontara mintzatzen gera maiz:

“Toki ederrean gelditu ditug lengo indartsuen markak.

Urreratu ere ez itukan egiten gaurkoengana”.

Oni “paso” esan bear “Enda-ñeta” ta Ostolaza baten kasoan, adibidez.

Ba-dakigu auengana etzala inor inguratu lengo zarretan.

Ez gaurko gaztetan ere. Galderatxo bat egiten utzi zaiguzute, mesedez:

Bakar batzuk kendu ezker, gaur ere zenbatek onduko luke

BASARRI

gerra aurrean “Ziaran-zar’ek” bederatzu arriko arri zilindroarekin egindako marka?

202 jasoaldi eman zizkion iru amarna minutuko tandetan “Ziaran-zar’ek”.

—oOo—

Gizonak eta markak juzkatze-ko, kondizio berdiñetan egin bear da lana. Izan dedilla ark erabili zuen tankerako arria: benetakoko xixtima zarreko arria, alegia.

Bestela bentaja aundiarekin jokatzera da. Onak ezta balio.

Arri kubikoak eta arri borobillak dira aldakuntzarik eztaukatenak eta izan ez lezaketenak.

Orain bi mila urte bezela dira gaur ere.

Aurrera ere bai, bestela ez litzake ez kubiko ta ez borobillak izango-ta.

—oOo—

Zilindroetan arri molde bakarra eman bear luke ontzat Federazioak.

Orain irurogei edo larrogei urteko indartsuak erabiltzen zuten arri moldeak.

Alakoarekin saiatu ziran “Aritza”, “Arteondo”, “Ziaran-zar”, “Getari”, “Intxaurregi”, ta beste ainbat.

Geroztik berdin Atxaga, “Soarte”, Manterola, “Usategiata” (aita) ta abar.

Xixtima berriko arria asma-tu bearria da: ezta urte askoko bizia.

—oOo—

Joko bat egiten danean, eta arri zilindroarekin jokatzera erabakitzen danean, benetakoko zilindroa izan dedilla, lenago oi zan bezela.

Ura bakarrik eman bear luke ontzat Federazioak, beste guztiak erabat galerazirik.

Orduan ikusiko genduke ederkilengo indartsu zarretatik gaurko berrietara ze alde dagon.

Zilindroa zilindro izango litzake, kubikoa kubiko dan bezela.

Zalantzak eta dudak azkar aspiratuko genituzke: lasaitasun osoan itzegiteko moduan izango ginake orduantxe.

Araudi edo erreglamentu bat egitea oso gutxi kostatzen da.

Federazioak ondo daki aurreko arriak nolakoak ziran. Zientoka daude bazterretan.

Jokalari danak artara bear-tu: araudia errespetatzea.

Bestela jokatzera ez utzi.

Garbitasun ederra egin lezake denbora gutxian, bai egurrekin eta bai arriekin.


Ziur gaude erriak txalo be-roak joko lizkiokela Federazio-ari onelako zerbait egingo balu.

Legepean eta garbi joka dituzela, edo dandela etxean bestela.

Au da bide bakarra.

ZOZKETA

3 BIZITZA



Iru bizitzako zozketa ontan Noiznaiko, Bizitzako, Erbesteratuen ta Aldi-jakiñeko kartillak sartuko dira. Martxoaren 11 arte jartzen diran

milla pezeta bakoitzeko zenbaki bat emango da, ta beste zenbaki bat jarrita dauden 5.000 pezeta bakoitzeko; milla pezeta sartuezkero.

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA



BERTSOLARIAK ANORGAN

(«Basarri»-ren omenez eta Ikastolaren alde)

Mattin Lasarte
Xalbador Lizaso
Igarzabal Gorrotxategi

Otsailaren 25-ean, eguerdiko 11'30-tan

— Bertsolariekin bazkaldu nahi dutenak dei egin «Jolas-etxera», 362040 urrutizkiñera.

ORMAZABAL - DAR DUNIXI

ETXEGINTZA TA ETXE - TXUKUNKETARAKOAK

URALITA ORDEZKARIA

TOLOSA URRETUXUA
Urrutizkiñak: Urrutizkiñak:
Etxekoa 65 19 60 Landolakoak 67 17 84
Landolakoak 65 19 33

ERAKUSTOKIA: Tolosa'n - Zuzenlarietegi, 7'ga

GARMENDIA

Ustegabeen Juan Garmendiaren bisita izan dugu. Ez genuen ezagutzen, ez eta berak gu ere. Aurpegi alaiatz lantegian barrena sartu zaigu betidanik etxeko balitz bezala. Nor ote zazpiki hau? Zuzen zuzen datorkigu gutaz galdetuz... geure burua aurkeztean diogu, bai eta berak nor den berehalaxe adiarazi ere, irribarrari etsi gabe.

Gazte da, guk geuk uste baino askoz ere gazteago, itxuraz behintzat. Semeak laguntzen bisita honetan, eta ez dirudi aita-semeak direnik. Halaxe aitortzen diogu aitari, eta bazter ezindako irribarra hura sendotzen eta finkatzen zaitu ezpainetan.

Ez zaigu esku hutsean etorri, moldatzen ari den Euskal Esku-Langintza delako sortaren IV alea eskaini nahian baizik. Dagoeneko irakurleak ongi samar dakike Garmendiaren sorta honetaz. Gure tolosarrak urteren buruan galtzen ari zaizkigun euskal esku-langintzaren ezagugarriak batzen dihardu. Hor eta hemen aztarrenak ikertuz, hainbat material aztertuz, eta gure esku-langintzaren azken arnasmotsa behin betiko bilduz.

Zatogillea, Zagigintza eta Zatiagintza (Ordiziá); Uztargillea eta Eskalapineilea (Luzaide); Goantegillea (Doneztebe); Puntako eta Erreboteko Txisteragintza (Olazabaldarrak) eta Saskigillea (Astiz) delako gaiak osatzen dute laugarren ale hau. Egilea ez zaitu baina aipaturiko esku-langintza bakoitzari soil soilik lotzen, aitzitik, hontaz eta hartaz ustegabea hainbat xehetasun ematen digu, ohizko lan motaz zein oinarritziko trenez hala beharrezko lanabes eta langintza bakoitzean gehien bat saiatu diren esku-langileen berri emanez.

Laugarren ale honi dagokionez, aipagarri benetan txisteragintzari buruzko azterketa, ia liburuaren hirugarren partearen aro honi atxikitzen zaizkio. Pelotari eta pelotazalenetzat —errebot eta punta batipat— bada ale honetan amaikatxo xehetasun jakingarri.

Liburuaren moldaketari —bi hizkuntzatan, euskaraz eta gaztelaniaz— ez ditzagu guk geuk egokiegia. Lehen ere esana dugu honetaz zertxobait eta ez dugu esana berean. Dena den —ondo nahiz txarto— bidezko dirudi jarako sorta amaizten ez den artean hasierako hildoiari rraitzea. Baina sistema bezala, gauza bera bi hizkuntzatan adiarazten dituen liburuak ez zaizkigu batere atsegín.

Amaitzeko, diogun, ihauterik gainean ditugula eta, Juan Garmendia beste liburu bat aurkeztu beharrean dugula. Liburu berri hau ihauteriei buruzkoa izan da, hain zuzen, eta Tolosako ihauterien berri ezizik, Euskal Herri guztiko ihauterien kondaira eta ohiturak ere bertan bilduko omen dira. Harako aurkezpena Tolosan izan da, hilaren 27an, Donostiako Aurrezki Kutxa Muzizipalaren geletan.



ELUSKA

Euskal izenen hauzia ez da, behar bada, garrantzi handikoa. Orain arte sail honetan harrera ona eman izan badiogu ez da, noski, hortik euskaldunoi egundainokoa etor dakigulako, gure euskalgintzan gauza txikiak ere bere tokitxoak behar dutelako baizik, eta guraso gazteei ardura zaielako gainera.

Bestalde, gaur egun euskal izenez dugun amorea jatorra izanez gainera, badu beste halako indar bat, juzgaduta barrena jaso ohi ditugun bortizkeriek eraginik, ezak ugaritasunak ez duen balioa eta apreziola bait du. Zenbaitetan esan dezake gauz hauzkeriak diréla, eta arrazoi du, baina hain zuzen, huseriak diréla hainbat minberago gertatzen zaigu euskal izenen gutiespena.

Izena, nor bere gustokoen jarri ahal izan behar luke, munduan barreneko amaikatxo estadutan bezala, baina, denok dakigunez badiugu guk muga batzuk, eta, zuzen nahiz oker, legea lege da legeria aldatzen ez den artean. Honetaz, Eliza Ama Legeria baino askoz ere irekiago dugu. Horrez gainera, egia da ere, Legeria bera hestuingo dela euskal izentzat gaztelaniazkoentzat baino, literaturazko erdal izen asko eta asko ez bait liriteke sekulan euskaldunek pasatu behar izaten duten galbahetatik pasatuko.

Dena den, apurka apurka, bi pausu aurrera eta bat atzera eginez, bagoaz pixkaka pixkaka gure euskal izendegia osatzen, Donostiatik jaso berri dugun gutun bat lekuko. Irakurleak ikus beza:

Kaixo Amatiño:

Asteoro irakurtzen diat hain irakurria den ZERUKO ARGIA-ko hire orrialdea eta bertan ikusi ahal izan diat haurrei euskaraz jarritako zenbait izen berriren zerrenda. Guk ere, bada, alabatzoko bat izan diagu, lehen kimua, eta ELUSKA jarri zioagu izena. Eta gainera, aurretik nahiz atzetik ezertxo ere erantsi gabe. Eluska eta kitto. Zer den? Askok zera esan ziguk, errusiar izena ematen duela. Hala emango dik behar bada, baina nork dudu erabat euskalduna denaz? Montañas Guipuzcoanas liburitik aukeratu diagu, bere fonetika biziki atsegingarria zitzaigulako. Aralar (Txindokiko) saroi baten izena duk. Ezer guti baina nahikoa guri gustatzeko. Euskaldunak izateaz gainera zertarako gehiago eskatu? Izen bezala jartzea nola lortu dugun? Gogor egin beharra zegoen gaurko ofizialtasunari, arras arrotz eta etsai dugulako.

Eluska urtarrian jaioa duk, 17an, eta famili-liburuko bere ezartzearen fotokopiak Euskaltzaindiak Donostiako Diputazioan duen delegazioan entregatuak zitua. Euskal izendegi eskasaren onerako izan dedila, bada, izen berri honen aurrera ateratzea.

Eta honenbestez, agur bero bat.

Zorionak gure irakurle sutsu honi izan berri duen lehen kimu horregatik Ekin eta jarrai adiskide. Euskal Herriko mendi tontor izenak gustatzen bazazkik, ez duk behintzat hik euskal izendegirik agortuko. Hire emateak badik zereginik mutill!

Baina, ziri az gainera bada besterik, guztiz eredugarri bait da irakurle honek egin duena, hau da, jaiotza agiriaren fotokopiak Euskaltzaindiari bidali. Zeren, denok horrela egingen bagenu, izendegi osatuago bat lort ahal izanen genuke.

Hain zuzen, mahai gainean dugu Jose Mari Satrustegiren gutun bat; urtarrian SAIOA eta AINARA izenei dagozkien xehetasunak bidali dizkiola Eibarko Juzgaduari, eta onartuak izan badira familia liburu argazkiak nahi lituzkeela, hien atzetik datorrenei laguntza eskaintzen ahal izateko. Beraz, inork badaki horretaz idaz dizagula guri edo Jose Mari Satrustegiri berari (Urdaian-Nafarroa).

EUSKAL LITERATURA 72

Duela hiru urte, LUR Editorialak Elerti-69 izeneko ale bat eskaini zigun —bere lehen aletariko bat—, eta honela irakurtzen genuen harako alearen hitz-atzen:

Lur-ek aurtendik aurrera urtero honen antzeko bilduma urtekari bat ateratzeko asmoa du. Urtero-urtero bilduko ditu liburu batean urte bakoitzaren lan interesgarrienak, honela euskal irakurgetarako zaletasuna behin eta betiko gure artean pitz dadin.

Geroztik, hiru urte —edo, behar bada, bi— joan zaizkigu era hartako bildumarik gehiago ikusi gabe, idazle ezagatik gure usteetan eta ez editorialaren beraren eruz, zuzendaritza mailan errazago bait dirudi honelako bilduma bat osatzea, literatura motaren bati datzekon idazlan bat bakarraz baizik. Dena den, hona hemen azkenik Euskal Literatura-72, duela hiru urtetako “elerti” hura “literatura” bilakatuz.

Gabriel Aresti, Bernardo Atxaga, Mikel Azurmendi, Luis Haranburu-Altuna, Xabier Kintana, Anjel Lertxundi, Ibon Sarasola, Arantxa Urretabizkaia eta Anjel Zelaieta idazle leen laneak osatzen dute bilduma hau, Poesia, Ipuin, Periodismo eta Antzerki delako literatura moten barreiatuak. Editorialak berak ondo dioenez, badezake bilduma honek aski baliorik. Zenbait ipuin —Oroitza Denememo-

riatuaren Egunek, Itsasoari Begira eta Emaidazu Eskua batipat— oso gustatu zaigu, halaber Borobila eta Puntua deritzan antzerki lana ere, gustatu baino interesatu apika, arras bakana bait da.

Periodismaz, oker ez bageude lehen aldiz aipatzen da halakorik (literatura mota bezala) euskal literaturaren bilduma batetan. Euskal kazetairtza hain urria eta balio gabekoa izanik, eta lehen aldiz gainera, barkagarri izan daitezke sail honi buruzko hautapenak; hala ere, gaude ez ote duen hautatzaileak —dena den— “lapsus” hoitako bat izan, zeren Malgizon eta lege berria onenean ere manifestu edo halakoren bat izan daiteke, baina ez behintzat kazetaritza izenpean bilduma batetan agerraraz ahal izatekoa.

Bataz beste liburu erabat irakurgarria delakoan gaude, erraza eta aspergaitza bestalde, Beltza joan adi etxera ipuin motela ezik, gainontzeko obrek halako maila bat dutelarik. Hitzaurrea, nahiko xelebrea, liburu orri pilarik astunena, eta dagoeneko gu baino luma hobek aipatua, Luis Haranburu-Altunari zor zaito.

Lehen aipatu dugun mailaz, azkenik, eta bildumari bere osotasunean gogozkiolarik, ez dugu uste LUR Editorialak berak dioen bezain apala denik. Aitzitik, ez dugu uste ere azken ale honek “egungo literatur produktioaren idea bat” eman ahal dezakeenik, onerako edo txarrerako, erungo euskal literaturaren mugimendua apurtzeko bat konplexoago bait da.

DENETARIK

Sail honetan esan bezala, hilaren 4an Txistulari Bileran ospatu zen Donostian, 150 txistulari bertan azaldu zirelarik. Beste zenbait arazoren artean, arau berriak onartu ziren —bazkide nagusien hauzia eta beste— eta agintaritzak onar zitzen utzi ziren.

Bestalde, erabaki ere erabaki zen, hemendik aurrera Elkartearen administrazioa Donostian geratuko dela, hego aldeko hiriburuz hiriburu (Donostia, Iruñea, Bilbao eta Gasteiz) bi urtetarik behin aldatu beharrean, orain arte egin den bezala.

Zuzendaritzak, ordea, bai Zuzendaritzak bi urtetarik behin aldatzen jarraituko omen du, datorren urte bikotea bizkaitarrei dagokielarik.

● Martxoaren 4, 11 eta 19an. Nafarroako Altsasun VII Kanta Altsasurra Lehiaketa eratu da. Lehen bi egunetan, 4 eta 11an, lehen mailaketa saioak izanen dira, eta 19an, azken saio berezia.

● Bizkaiko Arenaza leizezuloan (Galdames) zenbait labar irudi aurkitu berri da. Pedro Mari Gorrotxategi jaunak eta Jabier bere semeak lau orein eme, gorritz margoturik, aurkitu dituzte.

Irudiak, bataz beste, laurogei zentimetrotakoak dira, eta duela 20.000 urte inguru eginak. Honako honekin lau dira Bizkaian labar irudiak dituzten leizezuloak, hots: Santimamiñe, Bentalaperra, Goikolau eta Arenaza bera.

● Arabako Foru Diputazioaren Kultura Kontseiluaren habespean ari den Arkeologia Mintegiak, IV Arkeologia Ikastaroa antolatu berri du Gasteizen.

Ikasaldiak Luis Ajuria izeneko geletan eratu dira, Martxoaren 5etik, 23ra. arteko hiru asteren buruan, astelehen, asteazken eta ostiralean, arratsaldeko Setan. Horrez gainera, igande eta jai egunetan zenbait azterketa “in situ” egin ahal izanen da.

Honako ikasaldi hau lehen mailakoak izan ohi dira, arkeologiaren atari gisa, eta aurtun laupabost unibertsitateetatik propio etorriko diren katedradunek emanen dituzte harako ikasaldiak.

Ikastaro honetan parte hartzekotan, izenak ematea Gasteizko Arkeologia Museoa izanen da, otsailaren 28a baino lehenago.

● Hego aldetik ipar aldera ihesik joan behar izaten duten euskaldunoi laguntzeko, “Laguntza Batzorde” bat eratu berri da, nazioarteko “Gurutze Gorri” deritzan erakundearekin harremanetan arituko dena.

Hala ere, orain arte zeregin honetan ihardun duen “Anai Artea” deitu elkarteak agiri bat agerrarazi du, “Laguntza Batzorde” hori eratu arren ez diola berak hego aldeko euskaldunoi laguntzeari utziko; aitzitik, gero eta gehiago ahalaginduko dela Donibane Lohitzumen duen elkarteak.

● Ipar aldean bertan ere beste elkarte berri bat sortu da, baserriar elkarte bat hain zuzen, edo berek esaten dutenez “laborari batasun” bat. Honako elkarte berri honi LAN ARGÍ deritzate, eta Baigorriko seme den Mixel Berenguign jaunaren zuzendaritza jartzen dugu.

“Lan Argí” elkarte hau ipar aldeko hiru probintziatan barrena aritzeko sortua da, baserriarrei nekazaritza buruzko ikasaldiak eman ahal izateko. Elkarte honek bere ordezkariak ditu ia herri guztietan, eta hamabosten behin herri bakoitzean bilera aproposak egiteko asmoa du. Oraingo bilera bat baino gehiago eginga da zenbait herritan, eta laborari jendeak arras ongi erantzun omen du.

AMATIÑO



ZAGIGINTZA


NARRUZKO ZEZEN

Eibarko “Unibersidad Laboral” delakoan Narruzko Zezen izeneko antzerki talde bat sortu berri zaigu. Euskal izena badu ere, unibertsitate horretan lehendanik suma ahal izan dugun giroa erabat aldatzen ez bada behintzat —eta zail aldatzea Eibarko herriarentzat burutu ez denez gero—, ez dirudi inolaz ere euskal antzerkirik landuko duenik. Nonbait, orain modatan dugu edozer gauzari euskal izena jartzea, izenari izanari baino garrantzi gehiago emanez, zergatik ez dakigularik. Edo, hobeto esan, inork esan ez arren denok dakigularik. Zer demonstratu nahi ote dute?

Dena den, izenari berari astakeria hutsa deritzagu, ez bait diogu antzerki ere ematen zer esan gura ote duen, gaztelaniaz pentsatzen hasi behar ote dugu ba? Itxura denez, “Piel de Toro” —hai aukeratu ere!— nahi izan dute euskaratari, eta, antza, hitzez hitz itzuli ere: “Zezen larru” esan beharrean “Narruzko Zezen” atera zaie, hau da, “Piel de Toro” beharrean “Toro de Cuero” edo halakoren bat. Ez genekien, ez, zezenak —kapsuak bezala— larruzkoak zitezkeenik, ez behintzat Lasturtekoak!

Hala ere, orain arte ikus ahal izan duguna kontutan harturik, badirudi bai “Fiesta Nacional” delako horri gal ez dadin edo— gure zientzia gizonek lehenago eta errazago asmatuko dutela Salamancako landa lehorretan zein Huelvako hondartza urtsuetan “narruzko zezenak” sortaraztea, Euskal Herriaren euskal unibertsitatea baino.

Gure iritzi bihurri hau zuzentzeko izan gaitezela.



Frantziako Lege-etxea (ETAIII)

Norbait baldin bada kartsuki sartu dena ezkertiar izeneko egitarau programa aurki diren auteskundeetan gehiengoaz jabetzean osoan beteaz izan dedin alegintzen dena, egiz nahi duana, Séguy jauna da. Au ez dabil aiko maikotan, onek siñistu egiten du zin-zinez.

Guziok dakigu jaun au aurpegi kolore gorri mardul beteaz ogi kurrusku ederrik ez zaiola uts izan iduri, bere begi txiki oietan dirudiala maltzurkeri baten baño giltzaren jabe dala, jaun politiku au C.G.T. Langile Alkartasunako idazkari naguzia dugu, baitare eraberean P.C. agintari agiriretako bat.

Urriak dituan egun guzietan esate bateko zirikalarari aspertu eziñekoa langileriarene alde sortuaraziaz arrazoisko diren, eta beti izan ez diren, mugimendu aitzindari petoa. Zenbat aldiz azken urte abetan République-Nation-La Bastille auzo oietan bere oñiak beti lehenengo ilaran parte artu eta dute agerpen-manifestazio aunditan. Azken iru ilabete ontan ez dugu arriskurik beste ainbeste gerta dedin.

Beti behoki ditu jaun onek 68 garreneko zalapartak eta autarki bat bera ere gal ez dezan bere aldetik bere jokoa jokatzeko; baretu dedila zearo giroa, ez zirikatu, ez eskari berririk ta gutiago langile agerpen zaratatsu burrundaririk. Bego barne giro isila negu ontan udaberria datorkigunarte ezkertiar egitaraua gallur aulkian tinkotu dedin.

Bere jokoa da ori, noski iritzi berdiñeko ez dire denak C.F.T.D. idazkari naguziak onela iardetsi dio;

«...ezkertiarrik agintari izateak iñolaz ere ez dula aldatu behar langile alkartasunen egiketa, baldin langile alkartea Jaur-larritza politiku baten sarean geldi bada, dena politiku ekintza ortan egingo denan itxaroten, orduan ezkertiar Jaur-larritza ori antzu izatera datorkigu».

Séguy jauna barru-barrutik sartua da burruka politiku ontan, autarki ale guzian irabazle nahi izate orrek berarekin du beste ertz bat ere galtzale ager ditekera. Konturatu ditekera langileak Sindikatu agintari baten txorimalu baño zerbaite gehiago dela, bere gogoko ez den Jaur-larritza baten eguneroko zirikalarari bizia agertu ta ondoren bere ideia politiku gobernua agintari izatean langile alkartasunak ezer egiteko guti izanik.

Nork ez daki edo naiz ezagutzen ainbat Erresuma langile oporketa-huelgarik toki ez dutenak iñoi bere. Lurrean zoriontasun aundi bat litzateke ori baldin langileak opor ta burruka beharrik ez balu, langileak kapitalista sare ortatik libre dalarik bizitza goi mallara igota gizonari dagokion errespetu osoaz ager baledi. Baña goi malla ortan ager baledi...

Alderdi sozialistak eta berakin batean beste iritzi zuzeneko askok badakite zein litzateken bidea oraingotik aupatu litekezena ezkertiarrik agintari jabe izatera. Gaurko P.S. ez bait da lehenago ezagutu dugun S.F.I.O.

Aize berrizte bat artu du P.S. Alderdiak Mitterand jauna buru dalarik geldo-zahar usaña aztindu ta aize bolara berri baten jabe dala dirudi gaurkoz behinpein.

P.C. urte luzeetan buruz beti agertu da indar aundiagoko P.S. baño, askoz ere autarki ugariago izan ditu beti. Alderdi bezala erakunde-organizazio eginkorragoa bere ikurrinpeko dituan bazkide kidekoak ainbat eta ainbat ugariago ditualako.

Ori orrela dalarik ere gaurko bolara ontan P.S. agertzen da ezkertiar guzian gain autarki eman aurreko iritziaren, jendearen iritzi berri-emaile lan ontakoak diñoenek. Jakiña iritziak iritzi beste ez dire, ez iñolaz ere izaitte osoa. Baldin orrela balitza ez legoke zertan antolatuta auteskundeak berak ere.

Lehenengo bueltan nahi du P.S. indar aundiarekin jabetu bigarrenekoan aurreneko buru izan dedin orrela legez autarki gehien dituan ortara batu ditezten eta noski bidez Lege-Etxerako aldun gehiago autetsi komunistak baño. Ez izan ezpai Lecanuetarrak eta beste batzuk ere su emango llokela bide orri.

Komunistak konturatzen dire zer aize bolara dakarren gaurko giroak ta egitaraua gehienbat euren lana delarik, euren nekearen semean jaitza ori ikusi nahi badute ere ez dire gertu edozein lepo egite onartzeko. Bere neurriak omen ditu eskeintzak eta ez iñolaz ere euren buru erailtza ontzat ematea, orrela bigarren itzuli buelta ortan ez omen dire agertuko sozialista naiz radikal alde zirti-zarta erregalu emaile. Amaitu ei dire aurreko auteskundeetan antzo zortzi-amar aldun euren bizkar gizenze ori naiz eta sozialistak izan baliatua.

Arazoi apur baten jabe ez direnik nork ezazu, bestalde sozialistak egin duten ezkontza ortan gutienez indar berdiñeko izan nahi eukiko dituzten sendiko ar-emanetan pisu dezaten anka galtzeke.

Alberdi tar Andolin

FRANTZIAN, Katolikoak eta Politika

nai duenak ikasi...

Frantziako auteskundeak direla eta bada esatekorik eta interesgarrikerik gainera. Orrialde onetan ere lan batzuk argitara dira arazaren kakoa aztertuz. Baina bada puntu bat aztertu ez dena eta geldiro ausnartzea merezi duena, katolikoek artuko duten postura, alegia. Gure lan askoren iturburu den "Le Monde" egunkariak, ain zuzen, arazo au oraintsu aztertu du. Azterketa orren berri eman nahi nuke gaurko onetan.


Igaz, SOFRES erakundeak —enkuetak edo galdekizunak egiten dituen erakunde da au— frantses katolikoan politika jokabidea aztertu zuen eta La Croix egunkariaren argitara. Azterketa orrek lau frantses mota bereziten zituen: 1. Iñolaz ere katoliko sentitzen ez den taldea: %ko 21 frantses, edo berdin dena, bostetik frantses bat, postura onetan arkitzen da. 2. Elizatik oso urrutiko taldea: %eko 38 frantses. Anek, gaurko gizarte onen egoeraren, familiaren eta balore askoren oinarri egokitzat jotzen dute Eliza katolikoa nahiz eta berak katoliko ez sentitu. 3. Elizaren oso urte sentitzen den taldea: %eko 17 frantses. 4. Oso-rik Elizaren batzarkide sentitzen den taldea: %eko 24 frantses. Autarik, Elizaren gaurko egiturak onartzen dituzte batzuek baina bada dirasko aldatu behar direla uste duten beste batzuk ere.

Lagarren eta laugarren taldea katolikotzat joaz, azkeneko urte autan beren botoa eskubiko eta erdiko alderdiei eman dietela ikusten da. 1965 urtean izan ziren auteskundeetan De Gaulle eta Lecanuetek lau aldiz boto gehiago jaso zuten erlijioa praktikatzeko duten jendearen artean erlijio gabeak jendearen artean baino. Mitterand alderantziz gertatu zitzaion: erlijio gabeak jendearen artean berderatzi aldiz boto gehiago jaso zuten erlijio praktikatu edo astero mezarara joaten ziren artean baino. 1967 urteko auteskundeetan berdintzu gertatu zen: erlijioa praktikatzeko zutenetik %eko 9 bakarrik jotzen zuen bere burua ezkerretzat.

Aitor ditekera beraz soziologia mailan ari naiz, eta ez, ori ondo dagoen ala gaizki dagoen esaten, erlijioa asko praktikatzeko dutenek eskui aldera jotzen dutela auteskundeetan Frantzan. Baina erlijioa praktikatzeko duena, astero mezarara joaten dena bakarrik al da katoliko? Pratikak orik gaurregun lehengo esan nahirik ba al dute nor katoliko den ala ez erabakitzeke? Frantziak, batipat, mota batetako jendea ez ote da mezarara joango? Ez al da beste modu batetako azterketarik egin beharko?

Galdera auk eta beste batzuk gogoan izanik beste modu batetako azterketari ekin diote. Gotzaien posturak eta itzaldia, politikan murgildurik dabilzan katolikoan jokabideak aztertzen asi dira. Azterketa berri onen bidez katolikoa eskuiko gizona denik ez da ain garbi eta gutxiagorik ikusten.

Elizaren barrutian, lanean katoliko bezala sutsu ari direnek ezker aldera jo dutela adierazten du lan orrek. Berrogei urtetik beherako apaizak %eko 64ek beren botoa ezkerreko alderdiei emango diela aitortzen dute aurtengo auteskundeetan. IFOP erakundeak egindako beste azterketa batean. Elizaren barrutian ekintzale gogorrek direnak ezin ditezke beraz eskuikotzat jo, ez eta katoliko dirrelako ere besterik gabe, askok eta



Berrogei urtetik beherako apaizetatik, % 64k, ezkerreko alderdiei emango die botoa.

askok esaten duen bezala.

Frantziako gotzaiak onetaz ederki jabetu dira. "Politikan, kristau ekintza batetarako" gotzaiak egin duten txostenean onela diote: "Bakoitzen aukera politikoan ez du sinemenak bakarrik eragiten balizik eta aurrez beste mota askotako eragileek bakoitzaren historiak edo kondairak, zer nahizko baldintzak eta elkartasunak, bereziki "klasekoak", garrantzia andia izanik". Beraz, argi eta garbi, Frantziako gotzaiak pluralismoa onartzen dute politika sailean. Ez dute bide bat artzera behartzen.

Norbait, au irakurtzean, beste munduko gauzarik ez dudala esan aitor dezake, eta nik arazoi emango diot. Baina Frantziako historia ikusirik gotzaien posturak garrantzi andia du. Irugarren, eta Lagarren errepublikan gotzaiak ez ziren errepublika zale. Bosgarrena eldu zenean, De Gaulle berriro agintaritzara artu zuenean, egin ziren errepublika zale eta asko De Gaulle aldeko, iñoi, botoa bere alde eman behar zela adieraziz edo aginduz gainera. Orain, egoera aldatu egin da. Frantziako Elizak ez du agintariekin bat egin eta azaldu nahi. Azken urte autan, gobernuaren ekintza berezietan edo jaialdietan gotzaiak ez dute parte artu.

Gobernua alde batetik eta Eliza bestetik, diote gotzaiak.

Goian aipatu dudana esaldi orretan bada ordea asko esan nahi duen beste zerbaite, sinismena ez ezik badela beste eragilerik eta sinismena baino aurreagotik eragiten dutenak algeia. Goian aipatu ditudan datok orik garbi darakuskigute. Eta orain gotzaiak berek esan digute. Onek garrantzia du guretzako!!! Zergatik? Gure ingurura edo gure artera begiratu besterik ez dago. Egia esan, gure arteko azkeneko gertaerak ikusirik, arriturik arkitzen naiz.

Zenbaitentzat gure gizarteko auzi guztien gako sinismenean datza. Politika, ekonomia, kultura eta beste mailako arazo asko erlijio mailara itzulikatzen dute, katoliko izatera ala ez izatera, alegia. Bat bederarentzat ez da beste eragilerik sinismena izan ezik, pertsona orien ustez.

Gure erria berezia zela eta dela bagenekien, baina oraingoa autskoak autsiko ditugu. Bitxiaren bitxi bihurtzen ari gara. Europa guztian ez da orrelakorik ikusten. Eta nere iritziak indarrik ez bada Frantziako gotzaiak izango ahal du. Nahi duanentzat erakutsi ederra.

J. ELUSTONDO

zuretzat etxea
ZARAUTZEN

sarrera
50.000 pezetan

ordainketarako
erretasun osoz

- San Pelayo auzoan
- 560.000 pezetan etxe-bizitza
- Erabat bukatuak ditugu

Bear duzun informazio edo argitasuna:

- Asteartean, arratsaldeko 4-6,30 an
- Ostegun goizean 10-13 an
- Eta Donostiako ofizinetan edozein momentutan



CSC CONSTRUCTORA SOCIAL GUIPUZCOANA
AUZO-EGINTZA
Prim Kalean, 14-2 garrenean
Urrutizkiña 426906-429942
DONOSTIA

Publicidad Autorizada n.º 75

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chapeitica

Getaria, 16-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA



YOGUR
GURELESA
GOGOZKOENA



Sobietar Batasunaren 50 urte (eta II)

Sobiet Batasuna 16 errepublika sozialisten federazioa edo Elkargoa duzu. Errepublika inportanteena errusoa da, hiriburu Mosku duela, Elkargo osoaren hiriburu halaber. Sobiet Batasunean nazionalidade arras diferenteak daude (eta hoen artean ezin problema-rik falta), eta nazionalidade haundixoenetako bakoitzak bere Errepublika daduka. Gu- zien batasuna da Sobiet Batasuna deritzana.

Sobiet Gorenak daduka aginpide nagusia, berau bi besotan partitua dagoelarik: «Batasun Biltzarrea», 300 mila deputatu bururekin, eta «Nazionalidade Biltzarrea», errepu- blika bakoitzeko deputatuekin. Sobiet Gorenaren urtean behin bakarrik biltzen da, presu- puestu nazionala erabakitzeko. Urtean zehar aginpideaz baliatzen dena Sobiet Gorenaren presidiua da, eta «Herri-komisarioen Biltzarrea» ere beronek izendatzen du (orain «Mi- nistroen Biltzarrea» izenez).

Gaurko Sobiet Batasuna ez da 1922an sortutako hura bera. Erre- publika batzuk geroxeago elkartu ziren; batzuk «elkartuak» izan di- ra, eta ez beti modu bigunekin. Lehendik ere ez zen tipia, baina Munduko bigarren gerrakoan ira- bazitako lur berriek ere poliki za- baldu dute Sobiet Batasuna eta batez ere muga estrategikoak fin- katu dizkiote: 1939an, Hitleren hitz hartuta, Poloniaren eguzki- aldea bereganatu zuen (201 mila ki- lometro koadratu); 1940an errepu- blika baltikoak (166 mila kk) eta Romaniaren Besarabia eta Buko- winako iparraldea (50 mila kk); gerra ondoren Finlandiaren lurte- tatik 44 mila kk jaso zituen, Ale- maniarrenetik 18 mila, Txekoslo- bakiaren eta Hungariarenetik beste 12 mila. Asian ere ez zuen ezer galdu: 1944ean Tuva hartu zuen eta 1945ean Japoni Sachal- ingo hegoaldea eta Kurilak kendu zizkion. (Orain Japoniarrek lurral- deok atzera eskatu dituzte, eta so- bietarrek rebantxista ez izatearren, erantzun diete). Dena batera, Es- painia eta Portugal batera baino dextente gehiago. Gaurko Sobiet Batasuna USA baino ia hiru aldiz haundiagoa da (Alaska kontatu ga- be).

Halare Sobiet Batasuna gehiena Ksaren inperioa bera da, lurrez. Bakarrik, orduan lur konkistatuak, errusoen menpeko eskualde soil zi- renak, orain errepublika autonomo direla, obligazio eta eskubide ber- dinekin. Autonomia kontuan dife- rentziarik bada, noski, eta ez dut esan nahi errepublika denak ber- din-berdinak direnik; denak berdi- nak bai, baina batzuk besteak bai- no «berdinagoak» dira, dudarik ga- be.

Perspektiba historiko luzearekin ikusita, Batasunarekin herri denek irabazten dute, baina gehien ira- bazten duena, errepublika errusoa dela dirudi. Ez erdigunea bera de- lako eta direkzioa daramalako ba- karrik, haundiena ere bera izaki. Esaterako, Sobiet Batasuneko Asia- ko parteak, lehia haundiz lantegiz josten ari da, japoniarren eta ale- manen laguntza. Mundu berri bat sortzen ari da Siberian, «Far West» herri baten antzera. Imajinatu ere ezin genitzakeen industri-zenitroak ari dira muntatzen, eta siberiar ba-

sa murtu neurrigabea zibilizazio- arentzat irabazten da. Lan gaitza da, noski. Eta errepublika sobietar guziek hartzen dute enpresa hor- tan parte. Hauntza lanera doazen langile eta teknikoak (eta dagoene- ko miloika dira) Sobiet Batasune- ko bazter guzietatik datoz. Baina herri guzien saltza honekin sortzen ari den gizartea errusoa da, hiz- kuntzaz nahiz kulturaz, eta lurrez ere errepublika erruso.

Haro modernoan herri diferente- ren arteko elkar-bizitzak nolako bu- ruhausteak sortu dituen kontuan edukitzen bada, Sobiet Batasuna fenomeno franko mirengarria ger- tatzen da. Haro moderno guzia, nazionalismoak sortu dizkigun ger- rraz beteta dago. Orainsu hasi zaizkigu Europako Estatuak, elkar- bizitza nolabait egokitu nahirik. Sobiet Batasunak urte eta urtetan aurea hartu die. Eta ez urtetan bakarrik.

Sobiet Batasunaren barruko he- rriarik gehinak Batasunaren bar- ruan esnatu dira biziera politiko- ra. Batasunari zor dio nork bere kontzientzia politikoa. Lehenago ikaragarri atzeratuta zeuden, eta herri atomizatuak ziren, elkarren berri jakin gabe, herri barruan. Orain industria, eskolak, komuni- kazio bideak, administrazioa, jar- duera politiko bat, badituzte. Ber- ren kultura osatu dute. Sortu ere, Batasuna ez zen problemarik gabe sortu. Eta bistan da, herrion kon- zientzia hartzeaz eta desarroiloaz, ustegabea problema berriak ere sortu direla. Berak ekarri duen au- rrerapenarekin, arazo berriak sor- tu zaizkio Batasunari. Konpreni- tzen da, herriek besterik gabe onartzen ez badute, Moskutik le- henago bezala, dirijituak izatea, nahiz-eta horixe bera lehenago gu- ziz onuragarri gertatu izan. Elkar- bizitzarako antolamendu berriak sortu beharra legoke. Beraz, gero- ra Batasunak problemaok nola bu- rubidatuko dituen esatea, gauza zaila da. Batzutan erabiltzen diren erremedioek, gaitzak baino okerra- goak dirudite: errepublika baltiko- etan eta Ukrainian, adibidez, esku gogorarekin zuzendu nahi dira problemak. Juduen haizak ere sortzen du zer esanik franko.


Halabaina, errepublikarik gehie- netan problemaok ez dira hain go-

gorrak, eta errazago moldatzen di- ra. Errepublika bakoitzak bere mo- dura erreazionatzen bait du. Sen- timentu historikoak ez dira egun batetan itzaltzen, eta ez dute beti arrazoiarekin koinziditzen. Eta gau- za jakina da, sentimentu naziona- lek zerikusi haundia dutela, herrien arteko elkar-bizitzan. Dena den, dirudienez, errepublika gehienetan badakite, nahi luketen haina emat- en ez badie ere, Batasunak des- bentaja baino bentaja askoz ge- hiago eskaintzen diela.

Problema nazionalai buruz men- debaleko informazioak batzutan in- presio faltsoa sortzen du: errepu- blikoak Moskuk zapalduta, esplota- tuta, aprobetxatuta dauden in- presioa. Metropolia eta kolonia ba- lira bezala. Ez dut esango, horre- lakorik ezer ez dagoenik. Esatera- ko, errepublika baltikoak bortzaz errusiartatu nahi izan dira, ksa- rismoaren politikari segituz. Hone- lakoak batez ere Stalinen garaian eta haren deportazioetan ikus dai- tezke. Baina gaur, jeneralean, pro- blemaon arrazoiak beste bat da, esan bezala: aurrerapenarekin (eta Batasunari zor diote hori) herriek kontzientzia haundiagoa dute, eta kontzientzia haundiagoarekin nork bere jabeago ere izan nahi dute. Hau da, zapalketak ez baina de- sarroiloak dakazki haizki gehien- tan. Eta Sobiet Batasuneko estru- ktura politiko zurruntan ez da beti erraza, soluzioa asmatzea.

Mendebaleko Europa orain da- bilkigu, errepublika ezberdinen el- kar-bizitza politikoa nola moldatu asmatu ezinda. Egia da, presupu- tu diferenteetatik abiatu zaigula, «Europa batua» izan nahi duen hau. Eramateko prozedura ere di- ferentea izango da. Baina, esate- rako, Estaduen elkartasun hutsa- tara doala ematen du. Eta hortara ere poliki-poliki eta oso nekez. So- biet Batasunak baditu jadanik 50 urte, eta lortu duen batasuna ez da Estaduen, nazionalidade auto- nomoen elkartasuna baizik. Alde ona dago.

Sobiet Batasuna herrien arteko elkar-bizitza antolatzeke lehenengo esperientzia dugu. Hasiara bat, eta benetako berritasun bat. 50 urte pasa direlarik, hasiera huts bai- no gehiago ere badela, erakusten digu. Hein honetan behintzat, —eta



«Mundu berri bat sortzen ari da Siberian»



Mosku-ko Plaza Gorria

beharrezko diren puntuetan kriti- ka egin beharra ukatu gabe— ha- siera honi jarraitzapena eman bes- te erremedioarik ez zaio Europari gelditzen. Ez dut esaten, Sobiet Ba- tasunak bere abiadari eman dion jarraitzapena puntu guzietan onets genezakeenik: gauza batzutan So- biet Batasuna bere hasiera baino atzerago itzuli da, berritasuna lai- natuz. Esaldi hau konprenitzeko, izen bat bakarrik aski date, haren arrakasta oraindik indartsu bait da: Stalin.

Badakigu, internazionalismoa ai- patu den guzietan, ez zela inter- nazionalismoari zerbitzatzeko. Bai- na herriek, XIX mendeko naziona- lismoak superatuz, etorkizunerako

eduki nahi duten, eta eduki be- harko duten elkar-bizitza politiko- aren batasun arloan, Sobiet Bata- suna pionero bat izan dugu. Egile eta eragile.


Gu, berriz, geuk hori nahi ala ez, XIX mendean azpian gaude. Ta azpi hortatik ez da teoria bat- zurekin irtetzen, burrukarrekin bai- zik. Bestela ez da problemen su- perazio berbal hutsa, ahozko hu- tsa, besterik lortzen. Ilusioa da, berez etorriko denik, edo inork emango digunik, pentsatzea: inter- nazionalismoraino ailegatu egin behar da. Norbera, norbere burru- karekin, ailegatu.

JOXE AZURMENDI



SUKALDEKO MUEBLEAK
EDERRAK BEZAIN EGOKIAK

FELIX ETXABE, S. L.
Urrutizkiña: 891754
ZALDIBIA (Guip.)



LIBURUAK

NEURRITZIA

Durango Azokan Kardaberaz Bazkunak bere bigarren liburua aurkeztu zuen. Neurritzia deritza bigarren ale honi, eta Caracas-en prestatu zen Andima Ibiñagabeitia 1971 Saria irabazia da. Honako ale honekin, Kardaberaztarrek teknika gaietara ekin nahi izan diete alde batetik, eta zenbait euskal idazle nagusiren obrak argitaratzeari bestetik, «maitekiro egindako lanak illunpean usteldu ez ditezten». Izan ere, Kardaberaz Bazkunaren arduradun den Anastasio Arrindak atarian dioenez: «danak ez dira goi-goikoak izango; baina gaur ateratzen dan zenbait liburua baiño askoz ere obeak, bai, badira».

Gure nortasunari eusteko bide bakarra dala heziketarena eta herri batek ezin daitekeala iraun gaur egun kultur berezi eta benetako baten jabe bilakatzen ez baldin bada —dio, bestalde, hitzaurrean, «Andima Ibiñagabeitia Saria» sortu duen Caracas-eko Euskara Lagunen Elkarteak. Heziketa honetan teknika gaiak kontutan hartu beharrezko, noski, eta hildo horretan datorrigu Luis Egia bere Neurritzia delako lan neketsu honekin.

Lanari berari buruz zer esan ote genezake? Ez da erraz. Jakina, egile baten urtetako lanak ezin daitezke inolaz ere azal azalez eta inoxo inoxo azter. Hala beharrez, darabilen hiztegia arras bakana da, entsegu gisa zenbaitetan, eta ohiturak eta usuarioak onar edo bazter ahal izanen dute zenbait era.

Dena den, gaingiroki bada ere, hizkuntzaren aldetik bi sailetan berez dezakegu jeometria (Neurritzia) lan hau. Bata, hiztegi hutsa, hitz soil soilak alegia: Boilla (la esfera), Ein (potencia), Lauki-bizkirudia (prisma cuadrangular), Neur ez-bateko (irregular), Txano (cono), Zoko (ángulo) etab.

Bestea, aldiz, erak, azalpeak eta esateko moduak. Esate baterako:

$$X = \frac{6 \times 2}{10} = \frac{12}{10} = 1,20 \text{ mt.}$$

delakoa honela behar lizateke irakurri egilearen ustetan: X neurtzeko, sei eta bi alkar alditu, eta amarrez zatitu; edo berdin dana, amabi amarrez zatitu; edo berdin dana bat eta ogei metro egunen.

Geuri aldrebes samarra irizten zaigu, hala ere, iritzia iritzi, irakurle bakoitzak izanen du nor berea. Egilea, bestalde, nahiko apal agetzen zaigu eta esan ere esaten digu: «Noiz itz berriak artuko? Noiz auzokoa erabiliko? Orta dago koska Euskeraren aberastasunari begiratu bear zaio, eta euskaldunon ar-neurriari ere bai. Euskeraren oparotasunari lagundu, eta baita gure kapazitateari errepatu ere. Erdiko bide ori asmatzen dunak, orretxek egingo digu euskaldunoi mesederik aundiena.

Horrez gainera, egilea —Isaac Lopez Mendizabal eta Aita Plazido Mujikaren hiztegiak bere lanaren oinarritzat erabili dituelarik— pronto dago bati zein besteri entzuteko, eta ez bide luke nahi besterik, euskaldunok bat etor gintzen honako gai hautan baino, teknikatik ezin bait daiteke inolaz ere onar zentzu berdineko hitz desberdinek.

Egilearen euskarari dagokionez, azkenik, giputz soila, nonbait, eta urrutiago joan gabe, eraz eta moldez, liburuaren beraren atarian agertzen den euskara hartuko lukeelakoan gaude.

Bergaran Euskal Hiztegiak Koldo Mitxelena eman zuen hitzaldian gizona, egilearen liburua oso ona iruditzen zitzaiola esan zigun bertan zegoen entzule batek, eta zuenik eskasena titulua zela, hain zuten. Guk geuk ez genuke horrenbeste esanen.

Izan ere, kontutan izan daugun liburu hau irakaskintzarako «burutua» izan dela edota behar zuela izan, eta gure ueste apalean —irabazia duen sariatz gain— ez duela gaur eguneko irakaskintzarako balio. Orduan ikasi genduen «geometria» «neurritzia» izenagaz datorki, eta orduan ikasi genduzan erdel-izenak, euskera errikoitiek artutako izen bihurtzen ditu —esana du liburu honetaz «Gamiz» deritzan batek, liburuari mesede egiten diolakoan... ez bide da konturatzen duela hamar urtetako jeometriak ez duela egun ezer guti baino balio.

Bestalde, liburu honek ez dagokio jeometriari zientzia den aldetik, zientzia honek lagungarri eta azalpe bezala beharrezko duen «literatura»-ri baizik. Beraz, nolabait esateko, ez dateke jeometria euskeraz, euskera hizkuntzaren gaitasuna jeometria gaietan azaltzeko planteamendu bat baizik. Eta hau, ondo zein txarto egin, ez dakigu Neurritzia den, baina sekula ez, behintzat, jeometria.

L. A. A.

ITSASOAK EZ DU ESPERANTZARIK - nobela

Luis Haranburu-Altuna
LUR editoriala

«Itsasoak ez du esperantzarik» nobelak, gaurko bi gazteen amorioa du gai, beti balio duen gaia, dudarik gabe; baiñan nobela onetan maitasuna aitzaki bat dela dirudi, maitasunaren arazoak eta joerak oso azalekoak baitira. Nobelako mutilla bakardade bildurgarri batean bizi da: lana ez zaio atsegina ez eta gizartea ere; lagun artea ez du maitate; bere baitan esiturik dago. Gaurko zenbait gazteren ondo-eza, esperantza txikia ikusi litezke nobela onetan; baiñan ez tituluak esan nai duan ainbat. Izena aundiegia du barruan duan mamia-erantzako. Nobelaren egituraren, mobimentu gutxi dago; eta gogoeta gelegi, alkarizketa urriak eta motelak. Deskribzio interesgarri batzuk oso ongi eginak daude. Izkuntzaren aldetik, euskera errexa eta errikoia darabilzki, itz eta esatera arlote batzuk kendu ezkeru.

Errez irakurtzen dan nobela da; baiñan euskal-nobela, mailla batzuk gorago ikusi nai genuke.

MUSIKA

Donostiako Orfeoiua Berlinera bidean



Gure abeslarien historian, goren mailako gertakizun bezala hartu behar dira, Donostiako Orfeoiak Berlingo musika-zale ikasiei «Auditorium» deritzan tokian eman dizkien entzumaldiak. Fruebeck izan zuten koru-zuzendari eta filarmoni-orkesta laguntzaile.

Kritika guztiak beren alde izan dituzte garbi garbi. Baina bada zerbait kritika hoiestatik guk entzun edo irakurri ditugun berrietan, behar bezala argitu ez dana. Alemanak, gure abeslarien egiazko alderdiak neurtzean, berak dituzten abestaldetik onenen ondoan ipintzen dituzte: Sinfoni-orkestren Abesbatza, Opera edo Sta. Eduwigis-n Abesbatzaren ondoan alegia. Asko eskatu die beraz eta hori mesedegarri dugu. Honela haundiagoa bait da gure poza.

Gure iritzia zabalagoa izan zitezen, Iñaki Erasquin, Orfeoiaren zuzendari ordekoarengana jo genuen Aleman hizkuntza badaki be-

rak eta gertatu zana zehatzago ezagutzen du beraz.

—Iñaki, hau izan ote da Donostiako Orfeoiaren bizitza guztian, aukerarik haundiena eta iritxi duan arte-emaitziki bikaina?

—Berlingo Sinfoni-Orkestak mundu guztian duan entzutea, Orkestra horren sail-sailean sartu-izana, nahiko dira Donostiako Orfeoiak bere izaera luzean, izan duan aukerarik haundiena au izan dala esateko. Baina oso inguruan ditu beste batzuk ere: Edimburgon Londreseko Sinfoni-Orkestarekin eta Igor Markevich-en zuzendaritzapean Atlantida abestea edo Luzernako Jaialdian, jaialdi beraren Orkestarekin eta Fruebeck-en ardurapean «Carmina Burana» abestea.

—Berlingo lanak, beste irixpide batzutarako atea zabaldu dizkizula ueste al duzu?

—Oraindik ez dago esaterik tratatu edo itunik egiaz egin danik. Baina esan dezakegu hasiak dirala

harreman batzuk: Viena eta berriro Berlin izan ditezke hurrengo saioaldirako, mundu guztiko entzutoki hartan izan ohi dan jarraipenaren barruan.

—Alemaniako kritiken ikuspegi zabal bat emango al zeniguke?

—Kritika mordo batek lehenengo saioa bat ere aitzakiarik gabe go-raipatu zuen. Beste mordo batek akatsak aurkitzen zizkion, baina zuzendariaren jokabideari erantsiz Orfeoiua beti toki onean gelditu zan. Oso aldeko ez ziran kritika berek ere zuzendariak bere eskutan tresna bikaina zuala esaten zuten, orfeoiua onza zala alegia.

Paperetako kritikarik at kontzertuaren ziren entzuleena, sutsua eta beregisa, sortua izan zan. (Entzule asko eta asko erabateko musikalaria zan). Besarkadak ugariak izan ziran nun-nahi, azken txaloak eten ezinak Madrigo gure entzule itsuak gogorazten zizkiguten.

Bada iritzi berezi bat: Von Karajan, konzertuaren izan ez zanak, hauxe esan zuan, orfeoi bat aurrean jarri ziotenean: «Gertakizun bikaina. Jendea ilurratua dago». Gure saioan nabarmendu dituzten alderdiak: zuzendariaren esanera eta harekin bat eginik aritzea, Jaipongo koruekin alderatuz, juxtu eta afinatuki abestea, abotsen edertasuna, alde hauetan ezagutzen ez dan bezalako.

—Donostiako Orfeoiua ala euskal-orfeoiua?

—Egunkari eta irratietan sortu dan arazo hau bidegabekoa da. Axolarik haundieneko saioetarako indar berriak bilatzea ez du oraingoxe Donostiako Orfeoiak, ez beste edozein orfeoi eta ezta koralak berak ere. Oraintze dabil Donostiako Orfeoiua 150 abeslarirekin lan egiten hasteko asmoz; asmo horrek era askotako erabakietara behartuko gaitu.

MUSIKA AUBRELARIA

Gure musikari aldaketa usaia dario nun-nahitik ugari. Behar bada urte eder batzuk galduak ditugu. 1958an ba ziran kezka bikainak baina ez ziran mamitu laguntza gutxi edo musikagile onenei bat ere eman ez zitzaielako. Haietako batzuk, gaur Euskal Erritik kanpo lanean ari diranak badatorrigu, gure hurrera, barruak esnarazi eta kezka erein nahian. Bat Jose Luis Isasa dugu, Donostiarra bera, Urtafariaren 25ean «Asociación Artística Guipuzcoana»ren tokian —gauza ez dan tokian— «Ageri II» izeneko lan aurrerakoia eskeini zuan. Oso jende gutxi joan zan. Kritikalaririk inor ez. Tekniko-elektroniko antolapen kaxakarra. Horrela beraz lana muskildurik gelditu zan.

Zail zait esannahiaren bilduma egitea, baina esan dezaket musika hau nola erabili zan: ondo erabilitako piano-zatiekin eta antolatutako piano-zatiekin, moog ere tar- tean zala. Musika hau entzun egin behar da zer dan piska bat antzemateko. Pena ematen digu, musikalazale uesteko gure jendeak, holako musikara inguratzeke hain gogo gutxi edukitzeak.

Bai, ordea, bihotzez zorionak ematen dizkiogu Jose Luis Isasasi eta bultzatzen diogu bere musikagintza berrien asmoetara eta gure herrian kezka ereitera.

Jose L. Ansorena

GOIZALDIEN XXV GARREN URTEBETETZEA DELA-TA, OSPAKETAK ITZALDIAK

Otsailak 22.—Itzaldia Udaletxearen batzokian ilunabarreko 8tan.
Izleri: Salvador Barandiaran
Gaia: IZTUETAREN DANTZA-MOLDEA
GOIZALDI taldeak tarteka dantzakerak agertuz

Martxoak 15.—Itzaldia toki berean eta ordu berean
Izleri: Franzisko Arraras Soto
Gaia: BAZTAN IBARREKO FOLKLOREA
Arizkongo dantzari taldearen agerraldiak

Apirilean.—Itzaldia betiko toki eta orduan
Izleri: Iñaki Urtizberera
Gaia: SOULE IBARREKO DANTZA ERRIKOIAK
Mauleongo dantzari taldearen agerraldiak

Maiatzak 18.—Itzaldia
Izleri: Iñaki Irgoien
Gaia: DURANGO ALDEKO DANTZAK
Yurretako dantzari taldearen agerraldiak

Urriari.—Itzaldia
Izleri: Joakin Jimenez
Gaia: ARABAKO DANTZAK
Arabako Aldundegiaren dantzari taldearen agerraldiak

Azaroan.—Itzaldia
Izleri: Salvador Barandiaran
Gaia: GIPIZKOAKO DANTZAK
GOIZALDI taldearen agerraldiak

IDAZLANEN LEIAKETA

Lanak euskeraz eta erderaz egin ditezke. Gaia, euskal dantzak izango da. Iru adinetan sailkatuko da saria.

Aurrenekoa: emezortzitik gorakoentzat
Leen-saria: 10.000 pezeta eta GOIZALDIren oroigarria.
Bigarren saria: 5.000 pezeta.
Iruigarrena: 2.500 pezeta.

Bigarrena: amalau urtetik amaazpi bitartekoentzat (emezortzi bete gabeentzat)
Leen-saria: 5.000 pezeta eta Iztueta ren makila.
Bigarrena: 3.000 pezeta
Iruigarrena: 2.000 pezeta

Iruigarrena: amalau urte bitartekoentzat
Leen-saria: 2.000 pezeta eta Iztueta ren makila
Bigarrena: 1.000 pezeta
Iruigarrena: 500 pezeta

Leiaketen zer-nolako guztiak garbi azalduko dira ikastetxe eta aldizkariaren bidez.

GOIZALDIEN LIBURUA

Goizaldi taldearen bizitza osoa agertuko da liburu ontan. Ogeita bost urteko ibiliak, jaialdiak, argazkiak, sariak, lagunak...

I.F.M.C.

UNECOn barruan dagoen «Folk Musi Council»-en bazkide da GOIZALDI. Goizaldien ogeita bosgarren urtebetetzea dela eta Donostian egingo du bi urtetik bein egiten duen Batzarra. Uztaillaren 26tik abuztuaren 1 arte izango da. 200nen bat lagun bilduko dira, unibertsidadeko irakasle, folklorelari eta abarretik.

GOIZALDIK

Azaroan amaituko du ospaketa au guztia jai bereziak eta sari banatzeak Iztueta ren omenez eginaz.

Baserriaren alde

EUSKAL ETA ERDAL

Caja de Ahorros

Municipal de San Sebastián

Banen baneko azikay
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru
aurreratzea

Baserri, lur-tresnak ta aber

Torelavega'ko Perira joan
etorriak



bermeo

ARTZAKO FRONTIOIA

Pelota toki au dala eta ez, Bermeoko Udal edo ayuntamentuak asmo eder bat artu dau. Toki au jaso; polistu eta estalduteko. Obe da berand, inoiz ez baiño!

1913 urtean irasi edo inauguratu zan leku eguzkitsu au. Eskui alde estalpetuta egoan tellatua. Eta goi eta beea jesarri leku lasaiakaz. Frontoi onetara etorten ziran Euskal Erriko pelotariik entzutetsuenak, eta bai zaratarik geien ataraten elienak ere. (Euron izenak agertutea astekari onetan, zerranda luzeagia izango litzake. Barka irakurle).

Gaur jasoten dana, tamalgarria da. Orna zaar bi edo iru agertuten dira billuz-billuzirik, eta eurok, gaizki zainduak. Onetara geldi geldika, joko leku polit au, laster ezereztuta geratuko zan danoren kaltegarri.

Orain ogeiren bat urte gitxi gora beera, arrantza Anadi edo kofradia eta udaltarrak gura ebien, bien kontura, frontoi onen atontze edo arregluta egitea. Baiña... Bermeoko gauza guztiak bezala, argatik edo onegaitik lurteratu zan asmo eta itxaropen guztia. Bearbada errua, itsastarrena izango zan. Bai ba, kirol eta beste jolasak gazteriantzako erriarenak izaten dira gelaetan.

Gaur entzun dogunatik, pelota toki ori atontzeko asmoak ei dira. Ekintza au aurrrera eroateko ere, bai ei dago bear dan dirua. Ordu onean izan dieitela albiste oneik. Gainera, oraingoan, goi alde guztia estaldua izango dala, eguraldi on zein txarrean pelotaka jotatuteko. Bardin beste deportetarako ere.

Ondikarren gomutauko dira Bilbaoko Club Deportivon, Barakaldon, Zabaldiden, Bermeo eta bai beste jokoleku askotan be; eskerrera, eskura, aurrera, zenbat bidar euren iztu aldietan entzun deusaun gure Anton Goitia, mundakarrari, Patxikori, Mateo eta Gumereri. Eta bai; berauko maillako Txoto, Baltsamo, Eskerti, Fermín eta Korokori. Onez urrengo, beste ogeiren bat entzute gixiagokoak. Gazte lerdan eta bizkorrak guztiak: kiroltzaletak onak.

1913 urtetik 1936 urtera, Bermeoko Euzko Gastedyako pelotari jatorrak neiko burrukea emon eutsien erri askotako pelotari. Eta Euskal Erriko Batzokien Txapelketa ospatuetan ere, bein baiño sarriegotan garaille izan ziran: Txapeldun. Talde oneik irabazita aibat txola edo kopa eder ekarri ziran itsasportu onetara.

Mundaka eta Bermeoko pelotazaleak makiña bat goiz arratsalde igaroten, ebien jokolarien pelota ibililerak ikusten eta euroi txaloak jotzen.

Gaur zer? Ezer ez. Orain mutil eta neskatilla gazteak, beste bide batzuk artu ditu euron jolasetako. Aaztu edo egi dira etxeko jolas osasuntsuak: geure gauzak diranakaz. Noiz arte?

Ia pelota toki onen atontzean barrituten diran leengo zaletasuna, joko garbirako, eta bal, beste deporte batzuentzako ere. Frontoi atontzek udaltarrak artu dabien buru-bide ona beintzat benetan txalotutekoa da. Garaia izan da Artzako pelota toki onen alde zerbait egiteko.

URKIDI

elgoibar

GU ERDI-MUTU

Pedro Migel Urruzunoren omenaldia dela-ta, Elgoibarren eratu berriak izan ditugu hainbat jaialdi. Urtarril osoan izan dugu nahiko zeregina eta denetara heldu ezinean Z. Argian erdi-mutu izan gaituzue. Bestalde, hutsa behar dugu erdi itota geratzeko ere. Lehorre txikia nahiko, ur guttiko jarjaria duen iturria agortzeko. Hori da gure kasoa ere.

Bainan aipa ditzagun gain-giroki bederen gure hurbilean entzun eta ikusi ahal izan duguna.

Abendu eta urtarrilean, Garate anaia, eman ahal izan diguten ikastaldi bikain hau, ezin utz dezakegu aipatzeko. Benetan interes-

garri derizkiogu Marxismoari buruz emaniko bi hileko ikastaro hau. Komunismoaz ondo jabetuak gure herritar Garate anaia hauek, eta entzuleek ere poliki erantzun dute. Honek hiltzaldirik ez da eman euskeraz gure herrian eta antolatzaileak bildur izan badira ere, oraingo herriaren erantzuna ikusi-az gero, beste zerbait gehiago eratzeko asmotan hurbildu zaizkigu, elkarturik eratzeko eta hala egin nahi dugu.

PEDRO MIGEL URRUZUNO

Batez ere euskal giroa indartu nahiz, P. M. Urruzuno eta bere lanak, bere herrian eta Euskalerrri osoan ezagutaraztearen, ondo merezitako omenaldi bat egin nahi izan dugu. Omenaldi hau, ez da izan hain zatatsua. Urruzuno bera gizon apala zenez gero, guk ere apaltasunez egin dugu ahal izan dugun apurtxo. Gauza handirik ez baina ia dena ondo atera zaigu. Banan-banan ezin aipa, bainan guztiz pozik garaia aitortu nahi dugu. Udaletxearen babespean eta bere diru laguntzarekin eratu ahal izan dugu omenaldi hau. Udaletxeak berak erosirik, Urruzunoren liburu mordo bat herrian eta duan zabaldu ditzagun gureganatu dizkigu eta honek Urruzuno ezagutarazten asko lagundu du eta gure lana erraztu ere bai.

Udaletxearen bertan bildu zen Euskaltzaindia eta bere bilbra itxiaren ondoren eta jendea gainezka zela entzun genituen. Euskaltzaindiako Lendakariaren agurra eta nahia eta baita ondorengo hiru hitzaldiak ere. Ondoren euskal irakasle karneta hartzea izan zen eta karnet hori lortu duten guztiak, lan egite usetan hartu badute, euskerak izango ditu kimu berri ugari. Guk hori nahi.

Eta bilera bukatzeko, Urruzunoren omenezko ipui-saria eman zen; hain zuzen ere, gure Antton izan zen irabazle. Antton hau, ikastola irakasle izateaz gainera, edozertarako doainak dituala dirudi. Jai ezatzaile, bertsolari, abeslari eta abeslari egile, irratietako hizlari trebe, idazle jariotsua eta orain ipui asmatzailer ere bai. Bere lanak Z. Argian sarri irakurri ohi ditugu eta geroan ere bere lanak nun-nahi azalduko diren ustea dugu. Honek bere ipuia irakurri ondoren Haritschelar jaunak agurtu zituen entzule guztiak.

Jaialdie elkartsunezko bazkari batekin eman zitzaion amaiera eta Euskaltzaindia eta Udaletxearen hurbilean 90 lagun elkartu ginen. Txistulari, abeslari eta bertsoekin alaitutako giro atsegin batez, eta San Martin jaunak antolatzaileak goraiatuaz bukatu zen hamar egunetan zehar Urruzunori eginko omenaldia.

Eta gure aldetik, nola nahi ere eskerrak parte hartu zuten guztiei.

Etxe-Pe-tarre

zumarraga

GAZTERI-BERRIA

Erriko berri emaille maillan gogoko egiten zaigu gure erriko Eliz-esparruan babesten diren gazteri taldeen berri ematea.

Une ontan ez da nere asmoa gazteri talde auen joan etorri guztiak aztertzea. Gaur, nere asmoa da, Gazteri talde onen biotz aunditasuna agertzea. Erri guztiaren gogoan dago joan diren Gabon jaietan nolako arretarekin ibili ziran.

Gurdi eta jaiotza biziarekin apa-induta, gabon abesti goxoak ezpaifietan. Jesusen jaiotza adierazten; guztia gure arteko beartsuen alde. Zer esanik ez dago, borondate oneko erritar guztiak egin ziotela arreta ona, eta jaso zizutela txaloak. Egun orretan zin egin zuten, antziferako oitura zaar bat, jarraituaz, santa Ageda egunean egingo zutela errian zear beste itenaldi bat.

Otsailak 4 Arratseko seiak inguru. Ez da nola naikoa izan une ontan geure barruan nabaitu degun biotz zarrada, gure begiz ikustean neska-mutil taldeak antziferako eran beren soñak apañduak, eta gure baso eta mendietarako gau-ibilaldi baterako bear diren tresnaz omituak, makilla, gau-argionti, ta abar. Zato bat edo beste nabaitu dugu.

Erri guztiak arrera ona egin dio

gazteria kementsu onen jardunari, eta arreta aundiz entzun ditu, arrats oni dagozkion abesti goxoak.

(Santa Martiri maitea, dago errukiz bete...)

Ez da gutxigotako, gazteria onek, bere biotz errukitsuaren deia jarraituaz, gaurko bere itenaldiaren oinarri artu du, Maria Teresa Berasategi Zabalo, neskatilla gaztea. 1972 urteko Urriaren 28an,, Altsasuko geltokian trenak berna biak moztu zizkion. Amabost urte ditu, bost senide ditu, beregurasoak guztiz ezagutuak dira gure errian. Otzaurteko Etxe-zurietan bizida. Gaur gure gazteria onek batu duen guztia neskatilla oni laguntzeko izango da.

Gure erriko Parroki liburuak dituen bezala 1972 garren urtean 196 bataio ospatu dira. Ilak 55 50 dira ezkondu diren bikoteak.

AZKARRAGA

areatza

ANTZERKIA

Urtarrillaren 21ean gaueko be-deratzean, Areatzako Konbentuko elizan, antzerki eder bat euki genituen. Antzerki onen izena "Garbonetako ikuskizuna" da, eta ziur ez dakigu nori idatzi eban baina jakitunek diñodie Pedro Barutia Aramayonakoak (Aramaiokoak) egiña dala. Antzerki onek euskera aldetik badaukaz utsak baina bai eta gauza onak be esate baterako esaerak. Gaia be oso interesgarria da, konturazten bagara batez be 1752garren urtea baino leen eginda dagoela.

Antzerki au opatu euskuenak, Arantzazuko "Arantza" gazte taldea eta "Arratiako Oihartzunak" abestaldea izan ziran. Abestiak oso ederto abestuta egon ziran, eta antzerki barruko zati batzuk abestuta egin ziranak, antzerkia asko jantzit eban. Dantzak be oso ederto dantzatuta egon ziran. Txaloak talde bientzat eta aurrrera jarraitzeko esan bear jakie.

Beste alderdi batetik jende gitxi egon zala esan bearra dago. Nun egon ziran Areatzen bai folkloreak aldetik eta bai euskeraren aldetik lan egiten dabean gazteak? Ordua bear bada etzan ain ona izango, baina tabernetako ardaa? ori bai ori! ona izango zala. Areatzako askoren lanak uste dot jaietako astea antolatuta ezker amaituta dagozala eta au egia bada gal-duta gagoz.

Amaitzeko esan bear da, antzer-

ki aretan batu zan dirua Arratian dagozan ikastolei laguntzeko izan zala.

AREATZATARRA

mendexa

ANTZERKIA

Mendexako antzezleri taldeak ur-tarrillaren 14ean, Begiristain jaunaen "Bizia bizi truk", antzeztu eban.

Antzerki ederra, bikaina; esanai aundikoa.

Antzezleriak ikusgarri egin eban euren lana. Talde trebea daukagu oraintxe Mendexan; inorako bildur aundi bakoa.

Mendexa, Amoroto, Gizaburuaga, Anestia eta Munitibarko gazte batzuk alkartu dira, eta euren errietako umeak ezitzeko ardura artu dabe.

Kolonietan be izan zitezuan Na-farroan.

Beste ibillaldi eta batzar batzuk be egin dituez.

Orain, umeentzako aldiskari bat atara dabe "Poxpolin" izenekoa.

Illerokoa da. Leenengo alea irakurri dogu, eta oso ondo dagola iruditu jaku.

EZKONTZA

Urtarrillaren 20an ezkondu zan Baurdoko Eugenio Laka, Maruriko Ana Mari Elorriagarekin.

Zorionak!

Txakartegitar Joxe

aristegui hermanos

ZORUAK ETA ESTALKIAK, PERSIANAK, ATEAK, ETA ABAR. GARBITOKI ETA ITURKINTZA GAIAK.

ERAKUSTOKIA: FUENTERRABIA, 10 - URRUT. 11459 DONOSTIA

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Otek guziak berekin dituz Fanderiako pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI

CAJA LABORAL POPULAR

(LANKIDEEEN AUZO-AURREZKI ONTZIA)



— DIRU - PRESTAKETA ELKARTEA —

- Aurrezki kutxa onen laguntzak: — gizarte-saillean
- diruketa-saillean
- lantegi-zuzendaritza saillean

ZUK AUERRERATUTAKO DIRUAREN BIDEZ, LANGILLE ASKORI, BERE LAN-SARI PREMITIK IRTETZEKO BIDEA SORTUKO DIEGU

Laguntza ezin obehak, etekin eta irabazirik aundienak eta illeroko sari ederrak eskeintzen ditugu

Gure landolak erri auetan idikiak dauzkagu:

- Mondragoi
- Aretxabaleta
- Elorri
- Barakaldo
- Ondarroa
- Andoain
- Plazentzi
- Oniati
- Ormaiztegi
- Beasain
- Gernika

- Zumarraga
- Elgoibar
- Markina
- Bergara
- Altsasua
- Eibar
- Tolosa
- Pasai San Pedro
- Errenderi
- Billabona
- Gaztetz

- Bilbo
- Lézagpia
- Iruñe
- Durango
- Amorebieta
- Azpeitia
- Errieta
- Zarautz
- Sestao
- Ordizia
- Antigu


- Erreola
- Eskoriaza
- Izarra
- Ondarrabia
- Galtzarborda
- Lekeitio
- Llodio
- Recaldeberri
- Agurain
- San Andres
- Azkoitia

- Munguia
- Yurre
- Bermeo
- Lasarte
- Enanderian
- Santurce
- Zumaya
- Donostia
- Iruña
- Deba
- Anzuola

NEKAZARITZA AN ETA EMEN

JOSE ALKIZA

B E R R I A K



Ganadu-entresa batek lehenbizi behar duena, ongi prestaturik dagoen zuzendari bat da.

Baserri-entresa

Bi itz oiek elkarri josiak daude, edo egon behar lukete behintzat. Batzuentzat baserriak mendian sakabanatuta dauden etxeak dira, kaleko zurrubillo eta zarzatatik urrutik dauden patxarazko bizitokiak. Ortarako ez dauka entresa izan beharrik, ez lur asko, ez ikullu, ez ganadu beharrik; baiña orduan beste nonbait irabazi beharko du familia mantentzeko eguneroko oia.

Baserrian etxean lan eginez andik bizitze ezker, ordea, eskuz eta besoz aibat lan eta gehiago buruz egin behar da, baita jornal koskor bat irabazteko ere, eta orduan baserri ori entresa da. Etxeko nagusia bera da gehienentzen entresa ortako nagusi eta langille, zuzendari eta egile.

Galizia eta Asturiasko albaitearren elkartean batzarkide jakitun eta INIA-ko billaketari dan David Bayon-ek azaldu berri ditu zenbait iritzi España iparraldeko ganadu enpresei buruz. Asturias eta Galizian labrantzara ez baiña ganadutara ari diren baserriak baitira eta familiak lan egiten dutenak guretzat ere jakingarri izan ditezke gizon orren iritziak.

Ona emen batzuk:

«Ganadu entresa batek lehenbizi behar duena, ongi prestaturik dagoen zuzendari bat da. Ontarako berdin da entresa ori, familia bakar baten baserria izan, koperatiba bat, edo morroiak lanean darabilzkieen nagusi batena.

Zuzendari orrek, bere entresako garabeherak, zehatz jakin behar ditu, eta gailera, merkatuko berri ere ondo. Ez da erreza, gaur, aldakuntzak lehen baiña askoz azkarrago gertatzen baitira. Jakiña beharko ditu kontseju-emaille tekniko eta jakintsuak ere, baiña begia erne erabili behar du kontseju-emaille oiek aukeratzean.

Gobernuak nekazaritza eta ganaderitza ematen dizkion laguntzen berri berehala ikasi behar du. Esate baterako: oraindik orain eman du gobernuak agindu bat Galiziar eta iparralde guztiari mesede aundia ekar dezaioke, «ausnarrean egiten duten abere umegilleei buruz». Ez da aski, ordea, gobernuak laguntzak eskeintzea, enpresarioak enteratu gabe, edo ezjakintasunez, laguntza oiek ez baditu aprobetxatzen.

Edozein entresak bere martxa eramateko kapitala behar du, dirua; eta gaur egunean asko. Orregatik inor ezin da ari bere diruarekin bakarrik, eta mundu guztian gauzarik normalena da kreditoak ateratzea.

Nekazaritza ordea, ateratzen dan dirua, luzarora itzultzekotan izan behar du eta gehienentzen urte gutxirako eman ohi dute.

Galizian ehundaka baserri entresa berriak altxa ditezke. Adibidez: millaka txahal eramaten dituzte Galiziatik España beste lurraldeetara azi eta gizontzeko. Zekor oietatik asko Galizian bertan zergatik ez gizendu?

Txahal azitze ori diru emangarri dala eta ez dala, asko itzegin da. Badakigu ortan asi ziren zenbait entresak lur jo dutela. Bada, ordea, ortan diru irabazten duenik ere.

Entresa sortzeko eta eramateko ongi prestaturik dauden zuzendariak falta dira.

Emendik aurrerako entresak ganadu sano euki beharko dute, izan ere lanparoiak edo kaenako gaitzak jotako behiak eukitzea, nahikoa izango da beste gabe lur jotzeko; baiña etxeko nagusiari ez bazaio ori buruan sartzen, alferrik izango dira gailera esanak, eta ez du arretarik jarriko ganaduak txertatzen.

Nagusi izateak baditu bere alde onak eta txarrak, eta langille izateak ere bai. Langilleak ez dauka burua nekatu beharrik, entresan zer eta nola egin, eta egiten dana non eta zenbatean saldu; nagusiak bai. Nagusia, ordea, ez dago orduen mende, nahi izan ezker jai ar dezaie edo beranduago lanean asi.

Zenbait baserriarrek nagusi eta langillearen alde txarrak biak aritzen dituzte, au da, buruhauste franko erabili, eta lanean ere, orduen mende bizi, jai eta aste, uda eta negu, ordu berean ganadu gobernatzea eta behi jezteak norberak eginez.

Beste zenbait baserriarrek berriz ez dirudi buruhauste gehiegi darabilzkieen; segi betiko martxari eta kitto. Eta lanean ere ez da ordutara errenditzen, komeni zaionean utzi lanak andrearentzat eta alde ferriara, apustura edo gustoko lekura.

Ori da nagusiaren eta langillearen alde onak, bienak, aprobetxatzea. Ori da ondobizitea... irauten badio bizimodu orrek.

Ohartzerao baserria jan eta beste inon lantokirik gabe gelditzeko arriskua baitanka.

TXAHAL OBEAK

Edozeinek daki zekor ona azitzeko eta urterako 60 erralde egiteko ez dala nahikoa jaten ematea, gaia ere behar duela txahalak. Orregatik gure artean aibesteraño zabaldu da, behi pintoari ere txarlesaren azia jartzeko ohitura.

Behirik eskasena ere, zezen eder baten aziarekin txahal ederra ekarriko du, umea aitaren antzeko ateratzen bada behintzat. Amaren aldera irteten bada, ordea, izan ditekete ipurtestu, mehar eta zapatza.

Inglaterran, orain arte, behiari azi ona jarri eta konforme ziran, emen bezalatsu. Orain ez. Behi on bati, ormona bidez, arrautza edo emalgai gehiago sortarazten dizkiote; gero arrautza oiek kendu, ernaitu, eta beste behi txar bati ezarri.

Orrela behi txar orrek ez du bere odoleko umerik sortzen, ez azitzen; beste behi on baten eta zezen obeago baten aziz sortutako arrautza erretua ezartzen diote. Jaioko dan umea, behi pinto batek egiña izan arren, txaroles purua izan ditekete, esate baterako.

Sistema au nahiz aragitarako nahiz esnetarako behi arrazak obetzeko bikaina dala, ez didazute ukatuko. Orrela sortutako 20 zekor azi dituzte Ingalaterran.

Oraindik ordea, zailtasun franko badute. Behi on bati azi oiek kentzeko operazio bat egin behar baitaio eta gero, beste behi bati arrautza ernaitu ori ezartzeko, beste bat.

Gailera bati kendu orduko besteaz ezarri behar litzaioke. Ala ere konejujaren umetokijian bi iru egun bizirik iraun dezake eta ori nahikoa da Ingalaterratik Australiaraino olako aziak abioez bial ahal izateko.

Iritxi dute konejuagan ez ezik ortarako tuboetan egun batzuetan iraun eraztea. Urena iritxi nahi dutena zera da, behi bati kendu eta besteari jarri operazioari egin gabe. Eta denborarekin lortuko omen dute, gaur zezenaren aziarekin egiten dan bezala, otzean iraun erazi, eta indizio tankeran behiari ezartzea.

—Nahi dutena egitea zeukatek, nik ikulluan txekor kaskarren bat baldin badet arekin estaliko dizkit nere behiak eta... egingo dittek bai umea.

NEKAZARIEN ASEGURUA

Beren kontura ari dan nekazariak,

darabilzkieen baserriaren «líquido imponible» delakoa 15.000 pezatik gorakoa baldin bada, pagatu bai egiten du seguroa, besteak bezelaxe; baiña seguro orrek nekazariari ematen dizkien eskubideak ez dauka gozaterik.

Urgellet-Cerdanya-ko nekazarien sindikatuak Seo de Urgel-en egin zuten batzarrean erabaki au artu zuten:

«Ministerio de Trabajo» delakori eskabide bat egitea: 15.000 pezta tope ori, 40.000ra igo dezan oraingo, eta luzaro gabe erabat ken, nekazari guztiak aseguroaren bentajak goza ahal izan ditzaten.

Gure arteko batzuri ere ez litzaike gaizki etorriko, eskabide orren erantzutza baiezkoa balitz.

SANTANDER

Torrelavegako ferian joan dan urtean 55.261 buru saldu dira Santanderko probintziatik kanpora. Oietatik 15.048 esnebehiak ziren. Illean 1.500 bat dator, azken bi illabetan ez baitzen feriarik egin. Beste 40.121 txahal idixko, lau bat mila illean, eta oietaz gailera, 92 zekor zezenetarako.

Santanderko beste ferietan, Solares, Orejo, Saron, Beranga, Ampuero, eta abar, denen artean Torrelavegan aibat salduko zirela josten dute. Beraz Santanderek 100.000 burutik gora saldu ditu probintziatik kanpora, joan dan urtean bakarrik.

Ez pentsa igaz inoiz baiña gehiago saldu zanik; bi illabetez feriarik itxita egon zirela kontuan artu behar da. Aurreko urtean ere saldu zen oinbestetsu.

Ikusten denez Santanderren jaitzen diren txahal urux guztiak azitzen dituzte, eta jaioberritan saltzekotan idixkoak saltzen.

Gero esnebehiak edo bigantxak sobre dituzte etxean; emen berriz, beti eskas, beti erosten, eta beti, garesti daudelako, landu joka.

Nafarmiña dalata 250.000 behi txertatu dira Santanderren sei illabetetik gorakoak. Txertuok amar bat milloi kosta omen zaizkio estaduari.

ERRUSIARA

Españaik, elkarrekin daukaten traota dalata, lehenengo egin dion salketan 31.000 tonelada naranja eta limoi saldu dizkio Errusiari. Gutxi gora behera lau milloi terdi dolarren balioa.

Trukean zer ekarriko ote dute?

MANDO ESNE DUNA

Mundu ontan aña komeri ez da beste erri txiki baten gertatzen. Oraindik aditzeko gaudenak.

Mando bat, amabi bat urte zituen, errapea atera eta esnea ematen asi zan. Arrezkero beharko jecti lehertuko ez bazan. Goizean lanean asterako jecten zuten nagusiak, eta illunabarrean ikullura ekartzen berriz. Bi jectzalditan, egunean bi litrotik gora ematen zituen udan. Esnea analiatu zuten ondo eta behiarena edo auntzanaren antzekoa zan.

Ormonen trastornoren bat dala bide sortu omen zitzaion esnea.

Mando jabea pozik zegoen bere aberearekin eta beste dozenardi bat urtean euki zuten etxean; baiña gero, lanerako zahar-xamartu zalata, gazteago batekin trukatu zuten.

Nahiago zukeen traktore bat erosi eta alako mando aparta etxean jaso, baiña ezin diruz iritxi. Ori bai, tratariari zorrotz esan zion: mando ura eguneroko jecti beharko zuela lehertuko ez bazen.

Tratariak ere, berak zeukan artean jecti zuten «Cordobesa». Ori zan mandoaren izena. Gero, inguruan ez zala erostunik azaltzen eta, Cataluñara bidali zuten. Andik aurrera auskalo...

Izan ere ori da Castillako zaldi mando eta asto gehienentzen paradisoa: muga ingurura bidali, andik Frantziara pasatzeko. Beste aldean onuzkero lukainka biurtu dute.


Merezi zuten ba, olako mando apartak, zaharrez itzelen uztea!!! Izan ere Mancha-ko ehun erriatiko zaharrek aitortuko luketenez, ez da ezagutu sekula orrenbeste esne eman duen mandorik.

BESTEIA

Irungo Bazas mataderian il duten behi bati, barrenak garbitzean, ontzako urrea azaldu zaio mondeju aundian. Urrezko txanpona idatzia dago, eta mutiko bati erregalo egiña izandu zen noski. Dirudienez behiak orain dala illabete batzuk irentsi zuten.

Jendarmeriak jaso du arik-eta delako mutikoa arkitu arte.

—Umeok, galduko lukete, baita burua ere, itsasia ez baleramatel



Santanderrek 100.000 burutik gora saldu ditu probintziatik kanpora.

Mahai inguru baten inguruan

Euskal ekonomiaren etorkizunari behira (eta III)

D) Finantziarioa izan zen laugarren gaia. Ez da txantxetako. Hauxe izan zen galderetan gutxi gorabehera azaldu zena: Zer bide har ditzake geldiarazteko? Zer zeregin dute Aurrezki Kutxek? Zer ikusizun izan dezake Gipuzkoako "Banco Industrial"ak?

Finantza arazoa aztertzeke behar ziren nahitaezko oinarriak aipatu ziren gaiari sartu aurretik.

a) Otsailaren 4eko alean aztertu genduan, Estatuak hartzen du finantzen-gaitena "Plan de Estabilización"etik aurrera. Legebidez erabakitzen du non zer egin.

b) Oso etzeko egiten dira lantegi haundietako zuzendariak eta Estaduko Banakola eta Administrazioakoak. Harreman estuak dituzte. Erraz trukutzen eta aldatzen dira batetik bestera gizonak.

Beraz itsuak ere ikusten du Estadua duela beti eskutik hogeita hamar. Estadua daukala galbahea. Estadua zaintzen duela diruaren ibilia. Espainiako Bankaren bidez zaintzen ditu beste banketxeak. Legebidez, berriz, Aurrezki Kutxak. Hortaz aparte, zerga kentzeak eta diru laguntzak, dauka eskuan lurralde batzuei ibilia zailtzeko eta besteak eratzeko. Hona, lehen aipatu genduen I.N.I.ren zerikusia eta jokabidea.

Baina zuzenean ez ezik zeharka ere zaintzen eta kontrolatzen ditu finantzak.

Adibidez, herbestetik datorren dirua non jarri ere erabakitzen du. Badu berez askatasuna kanpoko diruak, baina begia argia du eta umeak erraz atera ditzakean lekuan egiten du habia. Lur maniatze hortan, berriz, Estadua du zerukusi haundia.

Hain zuzen hementxe datza Gipuzkoako ekonomian "Banco Industrial"ak duen zeregina, geroari eta etorkizunari begira, bildu duen leku berean, dirua zabalduz.

Hizlari guztiak Gipuzkoan Industri-Banka bat erakitzeke aldekoak ziren.

Zerikusia handia luke Banka honek ekonomi eraketan. Gipuzkoarentzat eta Euskal Herri osoarentzat mesedegarri irakeen bideak ebakiko lituzke.

Baina dirua nola bertan geldiarazi ez zen behar bezain garbi azaldu. Bideak batzuk aipatu, besteak ez zen egin.

—Lantegiak nahiko kolokan eta nahiko dirubide koskor bezala ikusten dira gaur eta diruak beste leku emankoragoetan jartzen ditu begiak. Lur sailak erosteko, adibidez. Azkar itxi beharrezko itutea dugu hau. Etekin hobea atera behar diegu gure ondasun eta diru indarrei.

—Autofinanziazioaren edo gauza bakoitzari bere burua ordain arazoa ere atera zen. Baina diruz ondo dabilanak bakarrik egin dezake etzeko diruz soilik zerbait. Ekonomia giro on eta osasungarria eskatzen du autofinanziazioak.

Baina zertako autofinanziatu? Berritzeke ala ez? Itoa dagoen ezangarri da ez berritzea, lehenean geratzea. Honek, berriz, ahuldua dagoela ekonomia-aren osasuna esan nahi du.

—Iritxi zitzaion txanda Aurrezki Kutxek ere. Euskal Herriko ekonomia-aren indartzean duten zerikusia aipatu zen. Irakurtzekoa litzake hontaz Gurutz Ansolak Z. Argian egin zuen lana. Vigoko irakasle den Bojoren iritziei jarraituz idatzi zuen "Aurrezki Kutxakoez entzun dezaten" deituraz.

Denontzat garbi dago Aurrezki Kutxak "Jegezko" bide hortatik atera eta Euskal Herriaren osasunari begiratzen hasi behar dutela. Gure ekonomia daukan premiak ikusirik lotsagarria da benetan gure indusiarako 5.000.000 pezeta besterik ez ematea. Hau askotan esan da, baina ez da aldaketarik nabaitzen. Legearen hitza bakarrik aldatu da.

—Finantza-laguntzak saltzalearen eskutan uzteko ordez eroslearen eskutan jartzeak garrantzi haundia lukeela adierazi zen.

Arazaoren azpi-azpian epe luze-erakoa eman behar diren kreditoen premia ikusi zen. Jakina, ostera Gipuzkoako "Banco Industrial"aren beharra aipatu zen.

—Nere ustez ez zitzaion behar hainbateko jaramonik egin dauden Banketxeen zereginari.

Ez lukeela axola haundirik edukiko noski, "Banco Industrial edo Comercial" izan, eginkizun hau betetzen bazuen.

Hontan datza kinka: Mintza al gintezke euskal-bankaz?

Galdera mardula da. Ez dago alborra uzterik. Orpotik heldu beharra dago. Bilbao ez baita, ene ustez, Euskal Herriarentzat finantzak ematea erabakiko duen lekua. Hau alderantziz esan zen hitzaldi haietan, baina ezezkolan nago. Aspaldi utzi bait zituzten hemengo banketxeek bertako hutsuneak zuzentzeko asmoak. Beste leku batzutan kokatu dira. Madrillen badaezpada ere.

Aspaldi izan zuen "enskal" Banketxe batek laguntza ukatzeko aurpegia. Bizkaiari ondo baino hobeto etorriko zitzaion premiarako zen. Lehorra izan zen erantzuna: Ez dezakegu hori egin, gu "Banco Nacional" bait gara. Eskubide osoz eska ditzagukete beste herrialdeetatik ere honerako ematen badugu". Huskeria da, baina zalantza guztiak uxatzen dituen. Non bildu du Banketxe horrek diru hori?...

Agian gutxi ezagutuko dute gertaera hau. Jaingarrria da Galiziako diruaren ihesia.

Ikus zer nola batzen eta zabaltzen den Galizian. Ikus banketxeen alde.

MADRID	63,7
MERCANTIL E INDUSTRIAL	37,4
POPULAR	94,2
SANTANDEE	29,8
VIZCAYA	107,7
EXTERIOR	64,1
HERRERO	11,1
CREDITO E INVERSIONES	33,8
PASTOR	56,3
ECHEVERRIA	80,4
SIMEON	69,1
NOGUEIRA	63,9
P. CASTEO	62,7
VIGO	31,6
DE SOTO	40,3
NOROESTE	64,9

"Gallegoak" dira azkeneko zortzi banka-etxeak. Baina hontarako bakarrik jarri dut aurreko zerrenda: biltzen dutena baino gehiago zabaltzen edo inbertitzen dutenak "VIZCAYA eta BILBAO" direla.

Beraz "gallego" bihurtu zaizkigu gure bi hauek ere... Eta hau gertatzen bada Galizian zer gertatuko ote Madrillen eta beste zenbait lekutan, goitik industri berezi eta indartsu bihurtu nahi diren zenbait tokitan?...

Itsuak ere uste izatekoa da Galizian eta beste zenbait lekutan koska pasatzen bada beste zenbait lekutan koskara iritxi gabe gertuko dela. Beste hoi-etan %tik gora igotzen bada beste zenbait %tik behera geratuko da noski. Non? Ez da zaila asmatzen.

Horregatik amorraziozko farregurea ematen dit zenbait iraultzaile usteko ezker-txangoen atxokeriak. Beti euskal oligarkia finantziatzailearen aurka zipoka ari dira... Hobe genduke balego. Gehiago iraungo genduke eta iraultza amaitutakoan zer banatua ere izango genduke.

E) Azkenik Euskal Herriko zerbitzuen egoera aipatu zen.

Zerbitzutarako emaniko diruaz mintzatu zen.

Bataz beste 1 izan da Espainiako Estadua barruan.

Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Nafarroa
1968-69-70	68-69-70	68-69-70	68-69-70

IRAKASKINTZA	0,4-0,96	0,66-0,78	1,24-0,68	0,21-0,61
	1,2	1	1,28	0,32

Inbestigazioa	Gutxiago	0,73-0,46	Gutxiago	Gutxiago
Gaixoa, Zehar, Elbarritasun... hots, gizarteko premitarako	"	0,84-0,84-1,08	"	"

Etxebizitzak	"	1,61-0,75-0,66	Gehiago	"
--------------	---	----------------	---------	---

Erakunde eta Hiri-zerbitzuak	"	0,14-0,85-0,38		
------------------------------	---	----------------	--	--

Garraio	"	Gehiago		
---------	---	---------	--	--

Hau guztia xehetzen jakin behar da. Beste tokietarako ematen denaren azpitik dago, jakina. Baina xertxobait nahi nuke argi jarri.

"I Plan de Desarrollo" k lurralde aurreratuenei eman zien batipat laguntza lurralde atzeratuek ahar-turik. Hontan "Banco Mundial"aren esana bete besterik ez zuen egin. Garbi jarriak izan ziren erabaki honen alderdi txarrak Figueroa, Tamames eta Rojoren aldetik.

Baina, ene ustez, ez ditekete "mediarekin" berdin eta konpara. Madril eta Barcelonari ematen zaiona ikusi behar da. Tokitan geratuko ginake. Puska ederra kenduko ligukete.

Gaur herrialde aurreratuak hartu duten trena gaur trena gaur hartzen ez badu sekulan ez du gehiago arrapatuko.

Baina jarrai dezagun argi gehiago egiten. 2.500 milloi pezeta etortzen dira Gipuzkoara Inbersioa eta gastutarako Hemendik atera, berriz, 12.500 milloi.

Espanian zerga bidez kentzen dena ikusirik, Gipuzkoari beste baimo bi halako gehiago kentzen zaio. Bizkaiari, berriz, hiru halako gehiago.


Gastuak, berriz, bizilagun bakoitzeko Gipuzkoan 3.900 pezeta eta Bizkaian 3.700. Espanian beste herrialdeetan, bataz beste, 3.935.

Hau besterik gabe aski garbia izanik ohar gaitean Espainiako zenbait lekutan ekonomia hartu duen abiadaz. Berehala arrunt atzera geldi gintezke.

—oOo—

Bildurtzekoa da hau guztia. Zer etorkizun du Euskal Herriak? Eragozpenez eta ezinez beteriko etorkizuna, noski. Baina badu Euskal Herriak hontaz jabetutako jendea. Borroka zuzendu behar hildo jatorrera. Bestela galduak gara.

Beste zerbait ere erantsi nahi nioke arazo honi. Eskuak daudela eta ari direla gauza hauek moldatzen eta zuzentzen beste zenbait lekutan. Ixpillu ederra jartzen digu, hitz bitan, "Correo Catalan"en, 72-X-28, Joakin Maluker-ek. Ramon I. Fargas-en li-



buruari egiten dion joraketan azaltzen da. "Introducción a l'economia catalana" du izena liburu honek.

"Basado en los anteriores resultados, Irias Fargas subraya energicamente la falsedad de la especie (muy generalizada más allá del Ebro, pero también sostenida por supuestos progresistas de este lado del río) según la cual Cataluña, mediante su exportación, se convierte en una región "colonizadora" o "explotadora". El ejemplo que vendría al caso —y que dista mucho de ser el catalán— sería el del país "colonizador" que aprovecha el superávit de su balanza comercial con el país "colonizado" para adueñarse de sus medios de producción. En nuestro caso, más de los dos tercios del déficit de la balanza comercial son recuperados por la vía —tan fácil y sin contrapartida— del impuesto y del sector público. También se drenan capitales —que tan necesarios serían para Cataluña— vía Cajas de Ahorro y otras y para mayor paradoja, en contrapartida, en obligaciones del INI, Deuda del Estado, etc., no confiere derecho político alguno a los titulares de dichas inversiones.

Para remachar, añadamos que es precisamente el proceso contrario el que parece darse. Cuando en virtud de los mecanismos descritos se produce un déficit en Cataluña, se cubre con capital del resto de España que, este sí, se invierte adquiriendo empresas, etc., con la plenitud de derechos económico-políticos. Y visto en su conjunto, podríamos añadir que el capital con que se efectúan estas adquisiciones de medios de producción de Cataluña, previamente, se ha extraído del país sin o con escasa contrapartida.

Si al panorama descrito le añadimos el patente déficit de infraestructura que sufre Cataluña en materia de educación, sanidad, comunicaciones, etc., concluiremos que el reproche de la colonización se vuelve en contra de quienes lo han empleado con tanta insolvencia intelectual, como posible mala fe".

AURTIZ

BILBAO % banaketa, bildutakotik	102,2
CENTRAL	36,7
ESPAÑOL DE CREDITO	30,8
HISPANO AMERICANO	43